

AUTOBABES-PLANA



AURKEZPENA (LAiko zuzendari orokorra)

Oraindik ere oinarri-oinarrizkoa da laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza hedatu eta prestakuntza ematea. Horretarako, ezinbestekoa da ahaleginak egitea honako ezparruan: Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren inguruko ezagutza sortzea eta zabaltzea

Zentsu honetan, aurretiaz ARRISKUEN EBALUAZIOA (01) eta SEGURTASUNeko SEINALEZTAPENA (02) Unitate Didaktikoak argitaratu eta EAEko Heziketa Zikloetako Ikastetxeetara zabaltzeko aukera izan genuen. Oraingoan, beste urrats bat ematea pentsatu dugu eskuartean duzuen hirugarren unitate didaktiko hau argitaratuz.

Azken urteotan, Lea Artibai Ikastetxeak hainbat ekimen bideratu ditu lan Arriskuen Prebentzioaren inguruan. Hona beste bat. Aspaldi egin genuen Prebentzioaren kultura zabaltzearen aldeko hautua geurean. Gure ikastetxetik igarotzen diren ikasleak, geroko lan-munduko protagonistak, hezitzeaz gain, gizarte osoa segurtasunaren eta prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko asmoz, geure ekarpen hau aurkezten dugu oraingoan.

Gure aldetik, abian jarritako bidean jarraitzekotan gaude eta beharrezkoak diren laguntzak izan ezker, UNITATE DIDAKTIKO berriak garatzen joango ginateke, beti ere, hezkuntza komunitatearen esku uzteko asmoz.

Noelia Barruetabeña
Lea Artibai Ikastetxeko Zuzendari Orokorra

AURKEPENA (Egilea)

Lan Arriskuen prebentziorako Legearen 20.artikuluari agertzen denez, “enpresaburuak, enpresaren tamaina eta jarduera eta bertan kanpoko pertsonak egon daitezkeela kontuan hartuta, gerta daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu behar ditu eta lehen sorospentarako, suteei aurre egiteko eta langileak ebakutzeko behar diren neurriak hartu behar ditu”.

Bestalde, AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUA (277/2010 DEKRETUA) dago indarrean 2010eko azaroaren geroztik, eta bertan, funtsean, larrialdiei aurre egiteko, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dira..

Zoritarrez, badira AUTOBABES-PLANA prestatuta izan, baina bulego jakin bateko armairuren batean gordeta daukaten enpresak. Dena den, gehiago dira gai honi behar besteko garrantzia ematen dien enpresak, eta AUTOBABES-PLANA eginda izateaz gain, modu egokian ezarrita dutenak.

Jakina, LAPeko teknikariek ez dute arazo gehiegirik izango autobabes-plan egokiak egin eta ezartzeko baina, nire ustez behintzat, oraindik alor gau ez dago behar beste barneratuta langileen artean eta are gutxiago gizartean, orohar.

Aurretiaz argitaratu ditugun Unitate Didaktikoetan ezarritako ildoak jarraituz, ahalik eta material praktikoen egiten ahalegindu gara oraingoan ere, lanean dauden langileei zein ikasleei zuzenduta. Horretarako, teoria eta horren inguruko hainbat ariketa praktikoa elkarrekin ditugu beste behin ere

Iñaki Beitia
Lea Artibai Ikastetxeko LAP arduraduna

2. AURKIBIDEA

1. AURKEZPENAK
2. AURKIBIDEA
3. **(01) UNITATE DIDAKTIKORA SARRERA.**
4. HELBURU OROKORRAK.
5. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK.
6. BITARTEKO DIDAKTIKOAK.
7. IRAKASTE-IKASTE EKINTZAK.
8. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.
9. HASIERAKO GALDEKETA.
10. **(02) ALDERDI OROKORRAK.**
11. **(03) AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUA: 277/2010 DEKRETUA**
12. AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAREN EGITURA
13. EZAREN-EREMUA
14. AUTOBABES-BETEBEHARRAK
15. PLANAREN EGITURA ETA EDUKIAK
16. NORK IDATZI DEZAKE AUTOBABES-PLAN BAT?
17. EUSKADIKO AUTOBABES PLANEN ERREGISTRO OROKORRAK
18. **(04) “PAUSOZ PAUSOKO” AUTOBABES-PLANAREN EZARPENA.**
19. I. KAPITULUA: TITULARRAK ETA JARDUERAREN KOKAGUNEA.
20. II. KAPITULUA: JARDUERAREN ETA HURA EGITEN DEN INGURUNE FISIKOAREN DESKRIPZIO ZEHATZA.
21. III.KAPITULUA: ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA EBALUAZIOA.
22. IV. KAPITULUA: AUTOBABES-NEURRIEN ETA –BALIABIDEEN INBENTARIOA ETA DESKRIPZIOA.
23. V. KAPITULUA: INSTALAZIOAK MANTENTZEKO PROGRAMA.
24. VI. KAPITULUA: LARRIALDIETAKO JARDUERA-PLANA.
25. VII. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANA GORAGOKO PLAN BATZUETAN TXERTATZEA.
26. VIII. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANAREN EZARPENA
27. IX. KAPITULUA: AUTOBABES PLANAREN ERAGINKORTASUNARI EUSTEA ETA EGUNERATZEA.
28. ERANSKINAK
29. **(05) SIMULAKROAK**
30. **(06) IKASTETXE BAKOITZARI EGOKITU DAITEZKEEN FITXAK**
31. **(07) UNITATE DIDAKTIKOAREN BUKAERAKO EBALUAZIOA**
32. **(08) JARDUEREN EMAITZAK**
33. LETRA-ZOPEN EMAITZAK
34. BIBLIOGRAFIA
35. AGURRA

01. UNITATE DIDAKTIKORA SARRERA




3. UNITATE DIDAKTIKORA SARRERA

UD 01 (ARRISKUEN EBALUAZIOA) eta **UD 02 Unitate Didaktikoek** (SEGURTASUNeko SEINALEZTAPENA) izan duten harrera ikusirik argi geneukan hirugarren honetan ere jarraitu beharreko ildoak.

Oraingoan ere ohiko liburu eredutik aldentzen saiatu gara. Hori baino gehiago izatea nahi dugu, erraminta interaktiboa, non ariketa teorikoak zein praktikotasun handikoak aurkitzen diren, jokoak tartekatuta, egindako lanari bizitasuna emateko helburuz.

Hainbat helburu finkatzen dira, hainbat estrategia metodologiko ezarri, beren beregi landutako baliabide didaktikoak aurkezten dira, hasierako ebaluazioa egiten da jakiteko zein den hasierako maila hori eta amaierako ebaluazioarekin amaitzen da.



4. HELBURU OROKORRAK

Hauek dira lortu nahi diren helburu orokorrak:

HELBURUAK: KONTZEPTUZZKOAK

- Autobabes-neurrien eta –baliabideen deskripzioa.
- Larritasun-maila ezberdinen sailkapena.
- Autobabes-planetan normalean kontenplazten diren larrialdi-egoeren ezagutza.
- Autobabeserako Euskal Arauaren deskripzioa eta ezarpena.
- Ebakuazio plana.

HELBURUAK: PROZEDURAZKOAK

- Autobabes-planen inguruko araudia ezagutu.
- Larrialdi-plana goragoko plan batzuetan txertatzea.
- Autobabes-neurrien erabilerari buruzko enpresa-beharren analisia.
- Larrialdietan jarduteko protokoloen analisia.

HELBURUAK: JARRERAZKOAK

- Autobabes-plan egoki bat izatearen beharraz jabetzea.
- Simulakroak egitearen garrantziaz jabetzea.
- Prebentzio-kulturaren sustapena bultzatzea.

5. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

Ikasle batek irakaskuntza metodologian jarraitu beharreko ezaugarri nabarmenenak hauek dira:

- ❖ **ERAKUSKETA BIDEZKO ikasketa:** Ezarritako heziketa edukien idatzizko transmisioa da. Hainbat jarduera daude programatuta. Erakusketa bera eta haren gainean hausnarketa eragiten duten galderak elkartzen dira.
- ❖ **AURKIKUNTZA BIDEZKO ikasketa:** Jarduera batzuetan, aldezturik, ikasleak informazioa bilatu behar izango du planteatzen diren arazoak konpontzen ahalegintzeko.
- ❖ **INSTRUKZIO BIDEZKO ikasketa:** Jarduera teoriko eta praktikoen bidez, ikasleak ikasitakoa praktikan jarri beharko du, eskaintzen zaion material lagungarria erabilita.
- ❖ **PAREKOTASUN BIDEZKO ikasketa:** Hainbat jarduera prestatu dira egoera konkretu bat aztertu eta arazoak konpontzen ikasteko, inguruan benetan egon diren gertaerez baliatuta.
- ❖ **IKERKETA BIDEZKO ikasketa:** Hainbat agertoki errealak zuzen-zuzenean aztertuta, ikasleak bere kabuz ikertu beharko du, eta ondorioak ateratu.

6. BITARTEKO DIDAKTIKOAK

Honako hauek dira aurreikusten diren bitarteko didaktikoak:

- ❖ Seinaleztapen-mota ezberdinak islatzen dituzten ilustrazioak eta argazkiak.
- ❖ Agertoki errealetan jarduerak gauzatzeko galdetegia.
- ❖ Prozesuen kontrolen, operazioen eta bestelakoen zerrendak.
- ❖ Hainbat joko (letra zopak, desberdintasunak bilatu eta abar).
- ❖ Araudien gainera erreferentziak.
- ❖ Eta abar.



7. IRAKASTE-IKASTE EKINTZAK

Hainbat jarduera mota proposatzen dira:

- ❖ Beren-beregi teorikoak diren jarduerak.
- ❖ Jarduera aktibo-praktikoak.
- ❖ Jarduera praktikoak agertoki birtualetan.

Beste alde batetik, ikaslea egon daitekeen benetako hainbat agertokitan gauzatzeko jarduera praktiko ugari ageri dira, hala nola, tailerrak, laborategiak, garajeak, biltegiak eta beste.

Batzuek pertsona bakoitza lanean jartzea eskatzen dute, eta beste batzuek taldean egin ahal dira, batez ere inguru errealetan egiteko pentsatuta dauden jarduerak.



8. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hainbat ebaluazio tresna edo erraminta jaso dira unitate didaktiko honetan:

- ❖ EBALUAZIOAREN HASIERAKO PROBA. Helburua zera da, unitatean behin eta berriro agertuko diren kontzeptu garrantzitsuenetako batzuk zenbateraino ezagutzen diren jakitea.
- ❖ EBALUAZIO ARIKETA PARTZIALAK. Behin eta berriro agertuko dira unitateko kapituluetan.
- ❖ AZKEN PROBA. Unitate didaktikoan jaso diren ezagutzen ebaluazio orokorra jasotzen du.

AUTOEBALUAZIO ariketak dira, hau da, ikasleak berak baino ez ditu gainbegiratu. Horretarako, unitate didaktikoaren amaieran, ebaluazio ariketa guztien erantzunak jasota geratu dira. Era horretara, ikasleak konparatu egin ditzake eta, horren ondorioz, autokalifikazioa egin.

Amaierako ebaluazioa egiten denean, ikasleari zera proposatzen zaio, ebaluazioko hasierako proba berriro egitea. Zentzuzkoena da bigarren saiakera horretan kalifikazioa nabarmen igotzea, proba egiteko orduan ikasleak beste ikuspegi bat izango duelako.



9. HASIERAKO GALDEKETA

?	Behar bezala izendatutako eta trebatutako ekipoen jarduera-protokoloak.
?	Larrialdietako pertsonalaren eta kanpoko laguntzen telefono zenbakiak edota erabili daitezkeen beste komunikazio bideak.
?	Aurreikusten ez den egoera, pertsonen, instalazioen, prozesuen edo ingurunearen kalte larriak edo handiak eragin ditzakeena eta lehentasuneko parte-hartzea eskatzen duena.
?	Larrialdi batek eragin dien pertsonal modu planifikatuan eramatea behin-behineko leku seguru batera.
?	Egoera erreal baten simulazioa, benetan gertatuko balitz bezala imitatuz.
?	Tokian bertan dauden pertsonak eta haiek dituzten bitartekoekin azkar eta erraz kontrolatu eta menderatu daitezkeen istripuak dira.
?	Lehen sorospenak ematerakoan jarraitu beharreko jardunbidea.
?	Pertsonak jarraibide jakin batzuk jarraitzeko abisua edo seinalea.

Unitate didaktikoan buru-belarri sartu aurretik, segurtasuneko seinaleztapenari buruzko galdeketa orokor bat planteatzen dizugu.



Ea argi dituzun hain ezagunak diren kontzeptu hauek. Ahalegindu zaitetz ezkerreko zutabea betetzen:

B.A.S.	A
EBAKUAZIOA	B
P.S.T.	C
ALARMA	D
INTERBENTZIO JARDUERAK	E
ALARMA LOKALIZATUA	F
LARRIALDIA	G
LARRIALDIARE HASTAPENA	H
KOMUNIKAZIOEN DIREKTORIOA	I
SIMULAKROA	J


02. ALDERDI OROKORRAK



10. ALDERDI OROKORRAK

LARRALDIA aurreikusten ez den egoera, pertsonen, instalazioen, prozesuen edo ingurunearen kalte larriak edo handiak eragin ditzakeena eta lehentasuneko parte-hartzea eskatzen duena da.

LARRIALDI EGOERA batean ez dago denbora nahikorik zer egin eta nork egin erabakitzeko. Ezinbestekoa da, beraz, larrialdi plangintza bat izatea eta berau praktikara eramateko behar beste entrenamendu-saio egitea.



Larrialdi plana giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzea eta antolatzea da, bai eta ekintzen sekuentziazioa antolatzea ere, larrialdiren baten eraginez pertsonak eta ondasunak izan ditzaketen kalteak murrizteko.

Lan Arriskuen prebentziorako Legearen 20.artikuluan agertzen denez, “enpresaburuak, enpresaren tamaina eta jardura eta bertan kanpoko pertsonak egon daitezkeela kontuan hartuta, gerta daitezkeen larrialdi-egoerak aztertu behar ditu eta lehen sorospentarako, suteei aurre egiteko eta langileak ebakutzeko behar diren neurriak hartu behar ditu”.



HORRETARAKO, ENPRESABURUAK NEURRI HORIEK PRAKTIKAN JARRIKO DITUZTEN LANGILEAK IZENDATU ETA ALDIAN-ALDIAN EGIAZTATUKO DU NEURRI HORIEN JARDUNBIDE EGOKIA.

Langile horiek prestakuntza nahikoa izan beharko dute, behar beste izango dira eta material egokia izango dute, arestian aipatu inguruabarren arabera.

Hartutako neurriak aplikatzeko, enpresaburuak **enpresatik kanpoko zerbitzuekin behar diren harremanak** izango ditu, bereziki lehen sorospenei, larrialdiko laguntza medikoari, salbamenduari eta suteei aurre egiteari dagokienez, **neurriok azkar eta eraginkortasunez beteko direla ziurtatzeko**

Larrialdi egoerak faktore ezberdinen ondorioz suerta daitezke, banaka emanda zein beraien artean interakzionatuz.

Hona hemen horietako batzuk:

- Enpresaren jardura normalean eman daitezkeen giza hutsegiteak.
- Huts teknikoak.
- Instalazioen diseinu-akatsak edota enpresaren antolaketan gabeziak edo akatsak.
- Hondamendi naturalak.
- Enpresaren ingurunearekin lotutako arriskuak.

10. 1. AUTOBABES-PLANAREN HELBURUAK

Enpresa guztien helburu nagusiak hauexek zaten dira normalean: emaitza onak lortzea, giro sozial ona lortzea, erabilitako baliabideei ahalik eta errendimendurik handiena lortzea, kalitatea eta ondorioz beharrezko lehiakortasuna lortzea, egoki kokatzeko egungo enpresa-jarduera zail honetan.



Hala ere, izan daiteke proiektu eta esfortzu guztiak ezerezean geratzea, enpresan, adibidez, sute bat egoten bada eta ez bagara gai behar bezala erantzuteko.

Seguruenik, ONDORIOEN TAMAINA, zuzenki proportzionala da, LARRIALDI-EGOERA jakin baten aurrean jokatzeko aurreikuspenik eta koordinaziorik ez egotearekin.



Zentsu honetan enpresa guztiek izan behar dute larrialdi-egoera bati bizkor eta egoki aurre egiteko plangintza diseinatuta, **AUTOBABES-PLANA**, alegia.

Era simple batean esanda, **AUTOBABES-PLANA** kudeaketarako tresna bat da, **LARRIALDI-EGOERA** baten aurrean, **NOLA JOKATU BEHAR DEN** ezartzen duena. Hau da, **ZER** egin, **NORK**, **NOIZ** eta **NOLA** zehaztu behar da.

AUTOBABES-PLAN baten **HELBURU NAGUSIA** enpresaren **BABESA** da, (prebentzioa eta erantzunaren faseetan) baina **BEREZKO ONURADUNAK** direnak **PLANIFIKATUTAKOA**.

AUTOBABES-PLANAK erantzuten dio baita ere beste helburu batzuei. **1. JARDUERA** honen bitartez horiek atertzen ahaleginduko gara. Irakuri ondorengo esaldiak eta osatu taularen eskumako zutabea, EGIA edo GEZURRA jarritz.



1	Eraikina eta instalazioak ezagutzea (edukitzailea eta edukia) da, hau da, sektoreen arriskugarritasuna eta eskura dauden babes-bitartekoak, indarreko araubidearekiko dauden gabeziak eta lehentasunez estaltzekoak diren beharrianak.	
2	Babes-neurri guztien eta instalazio orokorren fidagarritasuna ziurtatzea.	
3	Larrialdiak sortzen dituzten egoerak ez gertatzea.	
4	Pertsona-talde antolatua, prestatua eta ikasia izatea, azkar eta modu eraginkorrean egingo dituen larrialdiak kontrolatzeko behar diren ekintzak.	
5	Balizko bezeroen aurrean enpresa promozionatu.	
6	Eraikineko pertsona guztiek jakin behar dute nola jokatu behar duten larrialdietan eta zer prebentzio-neurri hartu behar dituzten haien ohiko lanean.	

10. 2. ZERTARAKO BALIO DU AUTOBABES-PLANAK?

2.JARDUERA honen bitartez aurretiaz aipatutakoa sakontzen ahaleginduko gara, AUTOBABES-PLAN batek zertarako balio duen aztertuz.



Oraingoan, ondoko esaldiak osatzea eskatzen zaizu. Horretarako, beheko aldean dauden hitzetatik, zeure ustez egokiak direnak aukeratuko dituzu:

Autobabes-Planak, besteak beste, balio du:

- *Pertsonen segurtasuna kolokan jartzen ahal duen edozein larrialdiren kausak ____ (a) ____ eta prebenitzea.*
- *Larrialdia gertatuz gero, ahalik denbora laburrenean kontrolatzea eta bere ondorioak ____ (b) ____.*
- *Kasu bakoitzean egoki diren bideak erabili, horretarako dauden giza baliabideak eta baliabide ____ (c) ____ egoki antolatuz.*

1		2		3	
AURREIKUSI	A	BULTZATZEA	A	ASTUNAK	A
DEBEKATU	B	MURRIZTEA	B	ARTIFIZIALAK	B
AHAZTU	C	BOROBILTZEA	C	MATERIALAK	C

Enpresa bateko AUTOBABES-PLANA aurreikusitako larrialdi posibleei aurre egiteko baliabide egokiak ezarri eta koordinatzeko egituratuta egon behar da. Horretarako honako urratsak emango dira:

1. Egon litezkeen arriskuak identifikatu.
2. Espero diren gertakari posibleen ondorioen simulazioa
3. Ondorioen eboluzioa enpresaren instalazioetan.
4. Espero diren larrialdietan jarduteko prozedurak eta bitartekoak zehaztu.
5. Aipatutako bitartekoak abian jartzeko modu eta momentu egokienak zehaztu.
6. Jardueren koordinazioa.



UNITATE DIDAKTIKOAREN HURRENGOKO ATALETAN JOANGO GARA GUZTIAK SAKONKI JORRATZEN.

10. 3. LARRIALDI-MOTAK

Zer da LARRIALDIAREN HASTAPENA? Zertan bereiten dira LARRIALI PARTZIALA eta LARRIALDI TOTALA? Noiz ekingo da dependentzia edo eraikin baten ebakuazioa? ...

3. JARDUERA honen bitartez LARRIALDIAK sailkatzen ahaleginduko gara, haien larritasun-mailaren arabera:



A	Bertako langileen eta babes-bitartekoen bidez erraz eta azkar kontrola eta konpon daitekeen egoera.	EBAKUAZIOA (E)
B	Kontrolatu ahal izateko, jarduera-sektore bakoitzeko berariazko zerbitzuek ezinbestean esku hartu behar badute. Larrialdiaren ondorioek sektore horri soilik eragiten diote, ez beste pertsona batzuei.	LARRIALDI OROKORRA (LO)
C	Kontrolatu ahal izateko, bertako babes-zerbitzu eta -bitarteko guztiak nahiz kanpoko laguntza- eta salbamendu-bitartekoak baliatu behar badira.	LARRIALDI PARTZIALA (LP)
D	Larrialdi batek eragin dien pertsonak modu ordenatu eta planifikatuan lantoki edo eraikin batetik ateratzea.	LARRIALDIAREN HASTAPENA (LH)

ZOPA-LETRA 1



Ea bilatzen dituzun AUTOBABES PLANEN alorrean erabiltzen diren 10 hitz. Ea bost minuturen barruan bilatzen dituzun!!

S	I	M	U	L	A	K	R	O	A
D	N	F	U	H	J	I	K	E	F
A	G	S	A	R	B	I	D	E	A
U	U	E	R	A	I	K	I	N	A
K	R	T	B	R	M	V	Y	Ñ	P
S	U	A	Y	A	T	R	E	L	A
I	N	P	S	U	T	E	A	G	R
R	E	G	N	L	E	N	R	L	S
R	A	V	T	Y	O	E	T	M	A
A	O	I	Z	A	U	K	A	B	E


Bakarren bat geratzen bazaizu bilatzeke, lasai, liburuaren amaieran bilatuko dituzu erantzunak.

EZBERDINTASUNAK BILATZEN

Ea bilatzen dituzun ilustrazio bi horien artean dauden 10 ezberdintasunak.



03. AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUA



11. AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUA: 277/2010 DEKRETUA

Aipatutako 277/2010 DEKRETUAN, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dira, larrialdiei aurre egiteko.

Estatu mailako aurrekari legal nagusiak hauexek dira:

- Urtarrilaren 21ko 2/1985 Legea: BABES ZIBILARI BURUZKOA.
- Apirilaren 3ko 1/1996 Legea: LARRIALDIAK KUDEATZEARI BURUZKOA.

Geroago, honakoa sartu zen indarrean:

- 393/2007 ERREGE-DEKRETUA martxoaren 23koa, Larrialdi egoerak sortarazi ahal dituzten jarduerak egiten dituzten bulego, establezimendu eta zentroetako Autobabeserako oinarritzko araua ebazten duena..

Eta azkenik, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:

- 277/2010 DEKRETUA, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko.

Arautegi honek AUTOBABESA definitu eta garatu, administrazio publikoen kontrol-tresnak finkatu, eta horrela betetzen dira LARRIALDIAK KUDEATZEARI buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 9., 10. eta 11. artikulatuak.



Horretarako, bere egiten ditu OINARRIZKO AUTOBABES ARAUTEGI estatalaren eduki minimoak, eta sakondu egiten du autobabes-betebeharretan: hedatu egiten du horren mende dauden jardueren eta establezimenduen katalogoa, eta betebehar horiek zabaldu egiten ditu estatuko arautegiaren xedapen minimoez harago. Herritarrentzat, ingurunearentzat eta ondasunentzat arriskutsuak, garrantzizkoak eta kaltegarriak izan daitezkeen

jardueren berariazko sektore-arautegia ere errespetatzen du.

Halaber, arrazoi eta oinarri beroriekin, egokitzen jo da zenbait jardueraren AUTOBABES PLANAK HOMOLOGATZEA.

Lan horren arduraduna larrialdien eta babes zibilaren arloan eskumenak dituen EAEko Administrazio Orokorraren organoa da.

12. AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAREN EGITURA

277/2010 Dekretuaren egitura honakoa da:

- 1. KAPITULUA: Xedapen orokorrak.
- 2. KAPITULUA: Autobabes-betebeharrak.
- 3. KAPITULUA: Autobabes-planak.
- 4. KAPITULUA: Botere publikoek autobabesa kontrolatzea eta sustatzea.
- 5. KAPITULUA: Autobabes-planen erregistro orokorra.
- I. ERANSKINA: Jardueren katalogoa.
- II. ERANSKINA: Autobabes-planaren eduki minimoa.

Unitate Didaktiko honen hurrengoko ataletan 277/2010 DEKRETUAREN atal garrantzitsuenak jorratzen joango gara.

13. EZARPEN-EREMUA

277/2010 DEKRETU honetan xedatutakoa aplikatuko zaie I. ERANSKINEKO jarduera guztiei, Euskadiko Autonomia Erkidegoan daudenei eta titularra edonor izanik ere.

ERANSKIN horretan agertzen den jarduera-katalogoa oso zabala eta anitza da. Zentsu honetan, **4. JARDUERA** honen bitartez atal honetan sakontzen hasiko gara. Kasu honetan, zeure ustez AUTOBABES-PLANA prestatu eta ezarri beharko luketen jarduerak zehaztea eskatzen zaizu:



1	Meatzaritzarekin lotutako ustiapenak eta industrial.	
2	EAEko errepide-sarearen tunelak.	
3	Aireportuak, aerodromoak eta aireportuetako beste instalazioak.	
4	Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak: eraikin itxiak, 300 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak, edo 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera dutenak.	
5	Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak: aire librean, oro har, 100 pertsona edo gehiagorentzako lekua dutenak.	
6	EAEko ordainpeko autobideak	
7	Merkataritza-portuak	
8	Egoitza- edo aterpe-jarduerak dituzten establezimendu publikoak	
9	Kudeatutako garaje eta aparkalekurako lokalak, 10 m ² -tik gorako azalera dutenak.	
10	Errepide eta tren bidezko merkantzia arriskutsuen garraiorako aparkatzeko guneak	

HEZKUNTZA-JARDUEREI dagokionez, ezinbestekoa da AUTOBABES-PLANA izatea honako kasuetan:

- Gorputz- edo adimen-desgaituei edo ebakuazioa beren kabuz egin ezin duten pertsonentzako hezkuntza-establezimenduak.
- 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera duen, edo 50 pertsona edo gehiago sartzen diren beste edozein hezkuntza-establezimendu.

14. AUTOBABES-BETEBEHARRAK

277/2010 DEKRETUAN, **AUTOBABES-BETEBEHARRAK** zehazten dira, honako kasuak bereiztuz:

- **PERTSONALAK.** Dekretu honen I. eranskinean aipatutako jardueretan ari diren langileek derrigorrez hartu behar dute parte AUTOBABES- PLANEAN, ahal duten neurrian, eta haren arabera dagozkien funtzioak onartu.
- **TITULARRAK.** Asko dira dekretu honetan ezarrita dauden AUTOBABES-BETEBEHARRAK eta **5.JARDUERA** honen bitartez ahaleginduko gara aztertze. Jarraian titularren AUTOBABES-BETEBEHAR nagusiak aurkezten bukatu gabeko esaldien bitartez. . Esaldi horiek bukatzea eskatzen zaizu, besterik gabe.



A	Beren jardueraren Autobabes Plana _____, Dekretu honetako edukiei eta irizpideei jarraiki.	BIDALTZEA JAKINARAZTEA LAN EGITEA AURKEZTEA INFORMATZEA EMATEA GARATZEA EGITEA PRESTATZEA ESKU JARTZEA EMATEA	
B	Autobabes Plana _____ jardueraren lizentzia edo baimena emateko eskumena duen administrazio publikoaren organoari.		
C	Autobabes Planaren eraginkortasuna ezartzeko eta mantentzeko jarduerak _____, Dekretu honetako edukiei eta irizpideei jarraiki.		
D	Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean _____ Dekretu honen 5. atalean aipatutako datuak, eta datu horiek eguneratuta edukitzea.		
E	Langileak informatzea eta _____ Autobabes Planaren edukiei buruz.		
F	Beharrezko informazioa _____, Autobabes Plana txertatu ahal izan dadin goragoko beste Autobabes Plan batzuetan eta Babes Zibileko planetan, hala balegokio.		
G	Larrialdien Euskal Sistemaren Zerbitzuen _____ Erregistroko datuen idatzizko kopia bat, plano eta guzti, lokalaren edo establezimenduaren sarreran agerian.		
H	Jarduera egiteko edo hasteko lizentzia edo baimena ematen duen organoa _____ jardueren edo instalazioen edozein aldaketa funtsezkeri buruz, autobabesari dagokionez.		
I	Administrazio publikoetako agintari eskudunekin batera _____, aplikagarriak diren babes zibileko arauen esparruan.		
J	Larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoari _____ Autobabes Planean aurreikusitako simulakroak edo ariketak.		
K	Autobabes-plana ezarri izanaren ziurtagiria ematea, III. eranskinean aipatutako informazioa erantsita, eta larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoari _____.		


15. EGITURA ETA EDUKIA

Funtsean, AUTOBABES-PLANEAN finkatzen da jarduera, zentro, establezimendu, gun, instalazio edo egoitza baten marko organikoa eta funtzionala, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko, eta larrialdietan erantzun egokia emateko, jarduerako titularraren mendeko esparruan, jarduera horiek larrialdien euskal sistemarekin integratzen direla bermatuz.

AUTOBABES-PLANA dokumentu bakar batean joango da, honako egitura eta eduki minimoaren arabera:

- 1.KAPITULUA: Titularrak eta jardueraren kokagunea.
- 2.KAPITULUA: Jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskripzio zehatza.
- 3.KAPITULUA: Arriskuen inbentarioa, analisia eta ebaluazioa
- 4.KAPITULUA: Autobabes-neurrien eta -baliabideen inbentarioa eta deskripzioa.
- 5.KAPITULUA: Instalazioak mantentzeko programa.
- 6.KAPITULUA: Larrialdietako jarduera-plana.
- 7.KAPITULUA: Autobabes-Plana goragoko plan batzuetan txertatzea.
- 8.KAPITULUA: Autobabes Planaren ezarpena.
- 9.KAPITULUA: Autobabes-Planaren eraginkortasunari eustea eta eguneratzea.

AUTOBABES-PLANEN DOKUMENTUETAN, HONAKO HIRU GEHIGARRIAK ERE SARTU BEHAR DIRA:



- I. GEHIGARRIA: Komunikazioen direktorioa.
- II. GEHIGARRIA: Larrialdiak kudeatzeko formularioak.
- III. GEHIGARRIA: Planoak.

Unitate Didaktikoaren hurrengoko ataletan joango gara jorratzen guztiak, ikuspuntu teoriko zein praktikoetatik, ezarpenerako aukera ezberdinak ematen saiatuz.

16. NORK IDATZI BEHAR DU AUTOBABES-PLAN BAT?

277/2010 DEKRETOAN gai honen inguruko berezitasun guztiak jorratzen dira, besteak beste honakoak argitzen dira:

- Nork idatzi eta sinatu dezake Autobabes-Plana?
- Noren ardura da Autobabes-Plana erregistratzea?
- Noren ardura da Autobabes-Plana ezartzea?
- Noren ardura da Autobabes-Plana eguneratuta mantentzea?
- Noren ardura da Autobabes-Plana berrikustea?
- Noren ardura da Autobabes-Plana ezartzea?
- Eta abar.





6. JARDUERA honen bitartez atal nagusiak aztertzen hasiko gara. Jarri EGIA edo GEZURRA jarraian aipatzen diren esaldietan:

1	Jarduerako titularraren ardura da Autobabes-Plana egitea eta ezartzea.	E	G
2	Jarduerako titularraren ardura da Autobabes-Plana mantentzea eta berrikustea.	E	G
3	Autobabes-Plana eduki behar duten zentro, establezimendu, espazio, instalazio eta egoitzek beren planean integratu behar dituzte fisikoki bertan egiten diren jarduera guztien planak.	E	G
4	Administrazio publiko eskudunek noiznahi eska diezaiokeite jardueraren titularrari Autobabes-Planak aldatzeko, zuzentzeko edo eguneratzeko, haiek egin ziren uneko egoerak aldatu badira.	E	G
5	Jarduerak dituen arriskuen aurrean autobabesaz irizpena emateko gai den teknikari batek idatzia eta sinatua egon behar du.	E	G
6	Jardueraren titularrak ere sinatu behar du, pertsona fisikoa bada, edo, pertsona juridikoa bada, hura ordezkatzen duen pertsonak.	E	G
7	Antolaketa hierarkizatu bat finkatuko da, dagoen antolamenduaren eta pertsonalaren barruan, eta erabakiko dira partaide guztiek larrialdietan dituzten zereginak eta ardurak.	E	G
8	Egitura horren baitan, jardueraren titularrak arduradun bakar bat izendatuko du arriskuen prebentzio-eta kontrol-jarduerak kudeatzeko, hau da, Autobabes-Planaren arduraduna.	E	G
9	II. eranskinari jarraiki, agintea eta kudeatzeko ahalmena dituen beste norbait Larrialdi-Planaren zuzendari izango da. Jardueraren titularrak izendatuko du hura ere, eta Autobabes-Planaren arduraduna izan daiteke.	E	G
10	Larrialdi Planaren zuzendariak jarriko du plana martxan, bertan esaten denari jarraiki, eta egoki denean larrialdia deklaratu du, Babes Zibileko agintari eskudunei jakinaraziko die Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez (SOS Deiak), langileak jakinaren gainean jarri, eta berehalako neurriak hartuko ditu istripuaren edo gertaeraren ondorioak murrizteko.	E	G

17. AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

EUSKADIKO AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORRA sortu da duela gutxi, larrialdien eta babesa zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko zuzendaritzaren mende, eta hark kudeatu eta idatziz jasoko ditu AUTOBABES-PLANEN datu esanguratsuak, Larrialdien Euskal Sistemak behar bezala funtziona dezan.

EUSKADIKO AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORRA ez da publikoa, eta eskura duten bakarrak dira jardueren titularrak –beren erregistro-datuei dagokionez–, bai eta Larrialdien Euskal Sistemaren barruko zerbitzu publikok ere, Dekretu honetan aipatutako baldintzetan.

AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORRAK zeregin hauek ditu:

- Autobabes-Planen datuak izenez jasotzea eta erregistro-zenbaki bat ematea.
- Erregistroko dokumentazioa euskarri elektronikoan jaso, gorde eta zaintzea.
- Larrialdien Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu publikoei erregistro-datuetarako sarbide elektroniko segurua ematea.
- Izena eman duten jardueretako titularrei beren erregistro-datuetara iristeko sarrera elektroniko segurua ematea.
- Izena emandako Autobabes-Planen arduradunei erregistro-datuak aldizka eguneratzeko eskatzea.


AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORREKO eduki minimoa ere zehaztuta dago 277/2010 DEKRETUAN, eta bertan, honako atalak bereizte dira:

- DATU OROKORRAK
- EGITURARI BURUZKO DATUAK
- INGURUNEARI BURUZKO DATUAK
- IRISGARRITASUNA
- SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIO TEKNIKOAK
- PLANOAK


Adibide gisa, **INGURUNEARI BURUZKO DATUAK** atalean zehaztu beharrekoak aurkezten dira:

Hiri-ingurunea	BAI		EZ	
Landa-ingurunea	BAI		EZ	
Ibaiak hurbil	BAI		EZ	
Merkantzia arriskutsuko ibilgailuak dabiltzan bideak hurbil	BAI		EZ	
Industrial hurbil	BAI		EZ	
Basoak hurbil	BAI		EZ	
Eraikin isolatua edo beste jarduera batzuen erdian	BAI		EZ	
Inguruneko jarduera-motak eta titularrak				

04. AUTOBABES PLANAREN EZARPENA -PAUSOZ PAUSO-



JARDUERAREN, ETA BERAU GARATUKO DEN INGURUNE FISIKOAREN DESKRIBAPENA



18. AUTOBABES PLANAREN EZARPENA: “PAUSOZ PAUSO”

Unitate didaktikoaren 15. atalean aipatu den bezala, 277/2010 DEKRETUAREN II. ERANSKINEAN zehazten da AUTOBABES-PLANAREN EDUKI MINIMOA.

Jarraian AUTOBABES-PLAN hipotetiko bat ezartzeari ekingo diogu, aipatutako dekretuan zehaztutakoak “pausoz pauso” ezarriz, beharrekoak diren azalpen osagarriak zein adibideak emanaz. Horrez gain, jarduera teoriko eta praktikoa ezberdinak ere planteatuko dira. ANIMO!!

19. 1. KAPITULUA: TITULARRAK ETA JARDUERAREN KOKAGUNEA

Atal honek interes administratiboa du nagusiki. Bertan, besteak beste, jardueraren titularraren datuak, kokagunea, planaren arduradunak, eta abar, zehazten dira.

19.1 JARDUERAREN HELBIDEA: Helbidea osoa (helbidea, posta-kodea, herria, telefonoa eta faxa, posta elektronikoa), hala balitz eraikin berean ematen diren beste jarduerak, alokairuan edo jabetza propioa, eta abar.

19.2 JARDUERARE TITULARRAK: Izena edo sozietatearen izena, helbidea, telefonoa, faxa, eta abar.

19.3 AUTOBABES-PLANAREN ARDURADUNAREN IZENA ETA, BESTE NORBAIT BADA, LARRIALDIETARAKO JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIAREA: Helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa, eta abar.

Seguruenik, zure enpresa edo ikastetxeak izango du AUTOBABES-PLANA ezarrita dagoeneko, eta sentzu horretan, langile guztiek izan beharko luke horren berri. Beraz, honako jarduera praktikoa planteatzen dizugu.

1. JARDUERA PRAKTIKOA. Zeure enpresa edo ikastetxeko AUTOBABES-PLANEAN izendatuta daude ondorengo arduradunen izenak lortzea eskatzen dizugu oraingoan. Galdetu zeure irakasle edota enpresako zuzeneko arduradunari.

Jardueraren titularra	
Autobabes-Planaren arduraduna	
Jarduera-Planaren arduraduna	

20. 2. KAPITULUA: JARDUERAREN ETA HURA EGITEN DEN INGURUNE FISIKOAREN DESKIPZIO ZEHATZA

Jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren inguruko informazioa jaso eta islatu behar da. Geroago, egon daitezkeen arrisku-egoera edota arrisku-faktore posibleak aztertu eta ebaluatuko lirateke. Honako atal ezberdinak bereiztuko dira:

20.1 PLANAREN BARRUAN EGINDAKO JARDUERA BAKOITZAREN DESKIPZIOA

Atal honetan jarduera nagusia aurkeztu eta deskribatuko da nagusiki. Egongo balira, beste jarduera osagarrien edota zerbitzuzko jardueren deskripzio laburra ere egingo da.

20.2 PLANAREN BARRUKO JARDUERAK EGINDAKO ZENTROAREN, ESTABLEZIMENDUAREN, EGOITZEN ETA INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA.

Zentro edo establezimenduaren ezaugarri orokorrak eta zerbitzuzko instalazio nagusien xehetasunak islatzen dira nagusiki atal honetan. Guztien azalerak ere zehazten dira, beste gauza batzuen artean, honakoak ere gehituz: egituraren baldintzak, itxidura motak, sute-sektoreak, pasabide, eskailera zein ateen ezaugarriak, eta abar.



[1 - Eraikin nagusia] [2 - Egotetxea] [3 - Elikagaiak eraikina] [4 - Esperantza eraikina] [5 - Berrikuntza eraikina]

ADIBIDEA: Eraikin nagusia dagoen orubeko azalera 32.942 m²koa da. Horietatik, eraikinak berak 5.074 m²ko azalera dauka. Eraikinean bi gunede, beheko solairuaz gain, gunede batean solairu bakar bat dagoelarik, eta bestean, aldiz, bi solairu. Bestalde:

- Bi guneeetan ate nagusiak daude, horietako bakoitzak, bi ate bikoitz dituelarik kanpoko aldean, eta beste bi barruko aldean.



- “A” gunean bigarren ate bikoitz bat dago, zehazki, beheko solairuan dagoen hitzaldi aretoan. Printzipioz, gela horretako larrialdi-irteera gisa dago kontenplatuta soilik, baina beharrezkoa balitz, eraikinaren ebakuazio orokorrean erabil daiteke baita ere.



- “B” guneko lehen solairuan, normalean zarratuta egoten den ate metaliko bat ere badago. Eskaileretatik eramateko zailak diren zamak garabiarekin igo eta jaisteko erabiltzeko pentsatuta dago.



- Eraikinak OINPLANO IRREGULARRA dauka. Hormigoi armatua da nagusi egituraren. Zimentuetan, zapata korrituak daude hormetan, eta zapata isolatuak gainontzekoan.



- Egitura altzairuzko zertxa metalikozkoa da; teilazko estaldura dauka, nerbiodun txapa gainean, eta polikarbonatozko xafla zeharrargiak erdialdean.



- Fatxadak bistako adreilu eta hormigoi pikatuzkoak dira. Zoruak orokorrean, terrazozkoak eta gresezko baldosazkoak dira. Sabaiak hormigoizkoak dira; zarpiatuta eta margotuta daude.



- Ikastetxeak honako pasabideak ditu:

1 PASABIDEA	2 PASABIDEA	3 PASABIDEA	4 PASABIDEA
			
Zabalera: 4,38 m	Zabalera: 2,78 m	Zabalera: 1,75,90 m	Zabalera: 3,20 m

- Eskailerei dagokionez, eraikin nagusiko guztiak berdinak dira eta honako ezaugarriak dituzte:

Zabalera	195 cm
Zinta irristagaitza	BAI
Baranda	BAI
Eskubanda	BAI
Maila	34 cm
Kontramaila	17 cm



- Argazkian ikusten den moduan, ate nagusien inguruak oso zabalak dira eta printzipioz behintzat, ez da aurreikusten arazo berezirik ebakuazio potentzial batean.



OSO GARRANTZITSUA: adibide horietan aipatutako alor batzuk geroago berrartuko dira, zehazki ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN SI-3 OINARRIZKO DOKUMENTUAN ("segurtasuna sutea denean") agertzen den OKUPAZIO DENTSITATEAK jorratzen den atalean.

2.JARDUERA PRAKTIKOA. Ikastetxearen egitura-baldintzen inguruko informazioa lortzea eskatzen zaizu oraingoan. Ea lortzeko gai zaren!!

DATU OROKORRAK		
Eraikitze urtea		
Egitura		
Fatxada		
Oinplanoa		
Kanpoko aroztegia		
Kanpoko ateak		
SOLAIRUA	Azalera erabilgarria	Eraikitako azalera
Behekoa		
Lehena		
Bigarrena		
GUZTIRA		
BARRUKO AKABERAK		
Zorua		
Hormak		
Sabaia		
Barruko aroztegia		
INSTALAZIOAK		
Berogailua		
Instalazio elektrikoa		
Aire konprimatua		
Gasa		
Aire egokitua		
Ura		
Besteak		

20.3 ERABILTZAILEEN SAILKAPENA ETA DESKRIPZIOA

Ikastetxean dauden lanpostu ezberdinak eta bakoitzean dauden langile kopuruak zehazten dira atal honetan. Jarduera horien deskripzio laburrak eta berezitasunak ere sar daitezke, ordutegiak, txandak, eta abar.

ADIBIDEA: Ikastetxeko erabiltzaileak direnen gutxi gorabeherako kopurua ondoko koadroan zehazten dena da:

PERTSONALA	KOPURUA
IKASLEAK	1.500
IRAKASLEAK	120
EZ-DOZENTEA	25

Zenbaki hau aldakorra da, izan ere, momentu bakoitzean ematen diren ikastaro kopuruaren arabera da.

- Ikastetxearen ordutegia: 8:00 - 21:00.
- Hezkuntza erreglatua (Batxilergoa eta Heziketa Zikloak zein ez erreglatua (formazio okupazionala eta etengabeko formazioa) ematen da.
- Horrez gain beste zenbait aktibitate ere jorratzen dira, besteak beste: zerbitzu-teknikoak enpresei, enpresa-proiektuak, I+G+B, eta abar.

3. JARDUERA PRAKTIKOA. Aipatu diren puntuak oinarritzat hartuz, eta hala nahiko bazenu, beste batzuekin osatuz, saiatu zaitez atal hau zeure ikastetxeko errealitateari egokitzen.

20.4 JARDUERAREN ERAIKINAK, INSTALAZIOAK ETA GUNEAK DAUDEN HIRI-, INDUSTRIA- EDO NATURA-INGURUNEEN DESKRIPZIOA

Inguruneari buruz eraikina edota establezimendua kokatzean datza. Deskripzio horretan, besteak beste, honakoak sartuko dira:

- Ingurunearen datuak: kontuan hartuz hiri-, industria- edota natura-ingurunea bada.
- Inguruko eraikinen altuera eta erabilerak.
- Inguruan potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen lokal edo instalazioak badaude.
- Eta abar.

ADIBIDEA: Inguruan dauden eraikinak hauexek dira:



Nabarmentzekoa da ikastetxea eta ibaiaren hurbiltasuna kontuan izan beharreko natura-ingurune aipagarri bezala.



20.5 SARBIDEEN DESKRIPZIOA. KANPO LAGUNTZARAKO IRISGARRITASUN- BALDINTZAK

Atal honetan honakoak deskribatuko dira:

- Sarbideak: Ibilbidearen ezaugarriak (errepide nagusiak zein bigarren mailako errepideak).
- Bideen zabalerak: Igaro behareko errepide, ka zein espaloiaren zabalerak.
- Zirkulazio norabideak.
- Eta abar.

ADIBIDEA: LARRIALDIETAKO KANPOKO ZERBITZUAK ERAIKINERA SARTZEKO, NAGUSIKI, honela egingo lukete:

- MARKINA-XEMEINGO parkeko SUHILTZAILEAK, BI-633 errepidetik etorri, eta ZALDUBIDE kaletik sartuko lirateke udalerrira; kale horretatik aurrera egingo lukete, kiroldegira heldu arte.
- ERTZAINZA: kiroldegitik 200 m eskasera dago; ZALDUBIDE kaletik sartu, eta kale horretatik jarraituko lukete, kiroldegiraino.
- UDALTZAINGOA: ZALDUPE ZUBITIK edo ZALDUBIDE kaletik, eta kale horretatik aurrera jarraituta, kiroldegiraino.
- ANBULATORIOKO OSASUN ZERBITZUAK: ZALDUPE zubitik.
- Eta abar.

Ibilgailuen sarbideko AZKEN ZATIA, berriz, KIROLDEGIKO fatxadaren, eta UDAL FUTBOL ZELAIAREN artean dagoen tartetik egingo litzateke. Bertan zenbait pibote daude, eta horietako bat kendu egin daiteke, behar izanez gero. Kiroldegiko harreran dago jaitsi daitekeen pibotearen giltza.

Jarraian, aipatutako pibotea jaisteko sekuentzia, osorik:



4. JARDUERA PRAKTIKOA. Zeure ikastetxearen inguruan ondoko informazioa bilatzea eskatzen zaizu:

- Bilatu zeure ikastetxeko aireko argazkia (eraikin guztiak, lorategiak, kirol instalakuntzak, aparkalekuak, inguruko eraikinak, eta abar.) eta baita bertara hurbiltzeko sarbideak (zirkulazio norabideak, eta abar.) ere.
- Deskribatu eta aztertu ikastetxearen kokapena eta ingurunea.:

DESKRIBATU KASU BAKOITZA	SARTU ARGAZKIAK
IPARREKO fatxada: EKIALDEKO fatxada: EKIALDEKO fatxada: MENDEBALEKO fatxada:	

ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN SI 5 ATALAREN (suhiltzaileen esku-hartzea) **SI OINARRIZKO DOKUMENTUAN ("SEGURTASUNA SUTEA DENEAN")** deskribatutakoari jarraituta, honako baldintza hauek bete behar dira:

- ERAIKINERA HURBILKETA EGITEA:
 - Gutxieneko zabalera librea: 3,50 m baino gehiago
 - Gutxieneko altuera librea edo galiboa: 4,50 m baino gehiago
 - Bidearen sostengu-ahalmena: 20 kN/m baino gehiago
 - Bihurguneak dauden tartetean, ibiltzeko erreia koroa zirkular bat trazatuta mugatu beharko da; koroa horren gutxieneko erradioek 5,30 m, eta 12,59 m izan behar dute, eta 7,20 m-ko zabalera librea izan behar dute, zirkulaziorako.
- ERAIKINAREN INGURUNEAK:
 - Zabalera: 5 m-tik gorakoa.
 - Altuera librea: eraikinarena.
 - Ibilgailuaren eta eraikinaren arteko gehienezko tartea (fatxadaren planotik bidearen errepidearen ertzeraino) 10 eta 23 m bitartekoa (taula bat dago).
 - Gehienezko tartea, eraikinaren edozein sarrera nagusiraino: 30 m.
 - Gehienezko malda: 10 %.
 - Lurra punzonatzearen aurkako erresistentzia: 10 t, 20 cm Ø-tan

5. JARDUERA PRAKTIKOA. Presta ezazu aipatu dugun **ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN SI 5 ATALAREN** (suhiltzaileen esku-hartzea) **SI OINARRIZKO DOKUMENTUAN ("SEGURTASUNA SUTEA DENEAN")** deskribatutako baldintzekin taula bat, eta zeure ikastetxeko errealitatea kontuan hartuz, esan jarraian, aldagai bakoitza betetzen den edo ez.

AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAK honakoa dio 2.kapituluari buruz: kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

- KOKAPENAREN PLANOA, ETA HAREN BARRUAN, SARBIDEAK, KOMUNIKAZIOAK ETA ABAR DAUDEN HIRI-, INDUSTRIA- EDO NATURA-INGURUNERIK HURBILENA.

ABIBIDEA: *Sarbideak.*



ADIBIDEA: Lea-Artibai Ikastetxeko kanpusa honakoak osatzen dute:


1 ERAIKINA	2 ERAIKINA
	
3 ERAIKINA	4 ERAIKINA
	

KIROL INSTALAZIOAK	LORATEGIAK
	
	

APARKALEKUAK	
	

- JARDUERA EGITEN DEN ERAIKIN, INSTALAZIO ETA GUNE GUZTIEN PLANO DESKRIBATZAILEAK

ADIBIDEA: Lehen solairuko tailer, laborategi, bulego, ordenadore gela, ikasgelak, eta abar.




OHARRA: Dependentzia-mota bakoitzari kolore jakin bat ezarri zaio.

- JARDUERA EGITEN DEN ERAIKIN, INSTALAZIO ETA GUNE GUZTIEN PLANO DESKRIBATZAILEAK

- JARDUERA EGITEN DEN ERAIKIN, INSTALAZIO ETA GUNE GUZTIEN PLANO DESKRIBATZAILEAK

ADIBIDEA: Eraikineko beste solairu bateko koadro elektrikoek kokapenak.



OHARRA: Solairuz-solairuko zubi-garabiak, gas konprimatuen ontziak, aire konprimatuen hartuneak, eta abar ikus daitezke baita ere.

21. 3. KAPITULUA: ARRISKUEN INBENTARIOA, ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Kapitulu honetan arriskua sortu edo larrialdi-egoerak eragin ditzaketen elementu, instalazio, ekoizpen-prozesu eta abar deskribatuko dira. Horrez gain, jarduerak berez dituen arriskuen eta kanpotik izan ditzakeen arriskuen identifikazio-, azterketa eta ebaluazio-metodoak zehaztuko dira.

21.1 ARRISKUA SORTU EDO OKERTU DEZAKETEN ELEMENTU, INSTALAZIO, EKOIPEN-PROZESU ETA ABARREN DESKRIPZIOA ETA KOKAPENA.

Eraikinaren egitura-baldintzak, ezaugarri orokorrak eta inguruneari dagozkionak deskribatu eta aztertu ondoren, zerbitzuzko instalazio nagusien xehetasunak islatu eta aztertu behar dira. Aipatzekoa da, instalazio horietako askok industria-segurtasuneko berariazko araudiak dituztela.

AUTOBABES-PLANARI dagokionez, besteak beste, ondokoen informazioa bildu eta aztertuko da: instalazio elektrikoa (behe-tentsioa eta goi-tentsioa), gas-instalazioa, aire akondizionatua, berotze-instalazioa, aparatu igotzaileak, produktu kimikoen biltegiak, presiopeko aparatuak, eta abar.




INDARREAN DAGOEN LEGEDIA BETETZEN DELA BERMATU BEHAR DA.

ADIBIDEA: Elektrizitate-instalazio nagusiaren ezaugarri aipagarrienak dira:

- Kontratutako potentzia 90 Kw dela (hausnartzen ari dira 75 Kw-era jaisteko aukera).
- Linea trifasikoa dela: 80 v + neutroa.
- 220 v-ko hartuneak, fase eta neutro artean lortzen direla.
- Hargune-lineek, faseko 10 mm²-ko sekzioa dutela.
- Etengailu orokorrak, 250 A-ko intentsitate nominala jasaten duela.
- Gaur egun, gutxi gorabehera 40 KVA-koa den erreserba-hornikuntza ere badagoela.

Instalazioa, jarraian datorren eskeman adierazitako moduan diseinatuta dago:




MANTENTZE-LANETARAKO KANPOKO ENPRESA	BAI EZ	ENPRESA	
ZEIN MAITASUNAREKIN	HILERO	TXOSTENAK NON DAUDE	

21.2 JARDUERAK BEREZ DITUEN ARRISKUEN ETA KANPOTIK IZAN DITZAKEEN ARRISKUEN IDENTIFIKAZIO, AZTERKETA ETA EBALUAZIOA (babes zibileko planetan eta hurbileko jarduera arriskutsuen lanetan aintzat hartutako arriskuak).

Kapitulu honetan honako arrisku potentzialak aztertzen dira:

- Enpresako jarduerak berez dituen arriskuak.
- Kokapena eta ingurunearekin lotutako arrisku potentzialak

Horiek guztiak aztertzeko, eskema honi jarraituko zaio:



7.JARDUERA honen bitartez aipatutako ARRISKU-MOTAK jorratuko ditugu. Aurkezten diren esaldiak eta arrisku-motak lotzea eskatzen zaizu. ANIMO!!



A	Naturatik eratorritako arriskuak lirateke: uholde-arriskua, lubiziak, elurteak, galernak, eta abar.	ARRISKU NATURALAK A.N.
B	Funtsean aktibitatea edo instalazioetatik eratorritako arriskuak izango lirateke: sutea, leherketa, eta abar.	ARRISKU TEKNOLOGIKOAK A.T.
C	Zenbait gizabanako edo talderen jokaera antisozialetik, zein portaera edo erreakzio kolektiboetatik eratorritako arriskuak dira: lapurreta, eta abar.	ARRISKU ANTROPIKOAK A.A

8. JARDUERA honen bitartez gehiago sakontzen ahaleginduko gara. Aztertu aurkezten diren arrisku potentzialak eta jatorria zehaztu behar duzu, barrukoa (aktibitatea) zein kanpokoa kokapena edo ingurunea) alegia:



	ARRISKU POTENTZIALAK	BARRUKO JATORRIA	KANPOKO JATORRIA
1	SUTEA		
2	TERREMOTO		
3	LEHERKETA		
4	U HOLDEAK		
5	LAN-ISTRIPUA		
6	BOMBA-MEHATXUA		

21.3 JARDUERA EGITEN DEN ERAIKIN, INSTALAZIO ETA GUNEETARA SARBIDEA DUTEN ETA JARDUERAREKIN LOTUTA EDO LOTU GABE DAUDEN PERTSONEN IDENTIFIKAZIOA, KUANTIFIKAZIOA ETA TIPOLOGIA.

Honako kasu hauek bereiztea komeni da:

- Bertako langileak.
- Lan egin ohi duten "kanpoko" langileak (azpikontratatuak).
- Bisitariak.

SOLAIRUA	DEPENDENTZIA	AZALERA m ²	OKUPAZIOA (m ² /pertsona)

Arautegiaren kunplimentazio maila konprobatzeko baldintza okerrenetan enpresan egon daitekeen pertsona kopurua edo gehienezko okupazio maila hartuko da erreferentzia gisa.

Erabiltzaileak kuantifikatzeaz gain, horien tipologia ere kontuan izan behar da.

Bildutako datu guztiak aztertu ondoren eraikinean dauden ebakuazio-ibilbideak eta ebakuazio-irteerak baloratuko dira. Horretarako, abiapuntutzat hartuko da **ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN, SI3 ATALEAN** dagoen **OKUPAZIO DENTSITATEEI** buruzko **2.1 TAULA**.

Jarraian, **HEZKUNTZA-SEKTOREARI** dagozkionak aurkezten dira:

GUNEA	OKUPAZIOA (m ² /pertsona)
Eraikina edo solairua bere osotasunean.	10
Ikasgelak ez diren beste lokalak, besteak beste, laborategiak, tailerrak, marrazki-gelak, eta abar.	5
Ikasgelak (haur hezkuntza izan ezik).	1,5
Haur hezkuntzako ikasgelak eta liburutegietako irakurtzeko gelak	2

Unitate didaktikoaren hurrengo ataletan jorratzen goango gara ondokoak kalkulatzeko ezarrita dauden irizpideak:


- Irteera kopuruak eta ebakuazio-ibilbideen luzerak.
- Ebakuazio-elementuen neurriak (ateak, pasabideak, eskailerak, arrapalak, eta abar.).

Puntu honetara iritsita, arazorik gabe egingo duzu seguruenik ondorengo **6.JARDUERA PRAKTIKOA**. Lokaliza ezazu aurretiaz aipatu dugun **ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN, S13 ATALEAN** dagoen **2.1 TAULA**, eta esan zeintzuk diren “**JENDEA HARTZEN DUTEN ERAIKIN PUBLIKOEI**” dagozkien **OKUPAZIO DENTSITATEAK**.

AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAN aipatzen denez, 3.kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

- Elementu edo instalazio arriskutsu guztien kokapen-planoak, solairuz-solairu, bertakoak zein ingurukoak.


ADIBIDEA: Biltegitratuta dauden produktu kimiko arriskutsuak dauden guneak.



22. 4.KAPITULUA: AUTOBABES-NEURRIEN ETA BALIABIDEEN INBENTARIOA ETA DESKRIPZIOA

Atal honetan deskribatzen dira enpresak aurreikusten dituen **NEURRIAK**, eta dituen **GIZA BALIABIDEAK** eta **BALIABIDE MATERIALAK**, honako hauek egiteko:

- **ANTZEMANDAKO ARRISKUAK KONTROLATZEKO**
- **LARRIALDI EGOEREI AURRE EGITEKO**
- **LARRIALDIETARAKO KANPO-ZERBITZUEN ESKU-HARTZEA AHALBIDETZEKO**



Prebentzioaren helburu nagusia gertaera ez desiragarrien agerpena saihestea da, edota posible ez balitz, ondorioak txikiagotzea, hura txikiagotuz, bere bilakaera posiblea ekidin eta neutralizazioa lortuz.

- **PREBENTZIO-NEURRI ESTRUKTURALAK:** beharrezkoak diren egiturazko elementuen ezarpena edota dauden moldaketa edo osaketan datza, gertaera ez desiragarrien agerpena ekidin edo ondorioak arrazoizko minimoetara txikiagotuz.

- **PREBENTZIO-NEURRI FUNTZIONALAK:** Arriskutsuak diren edo izan daitezkeen jardueretan, segurtasun eta kontrolari dagokionez, jarraitu beharreko urratsak pertsona jakin batzuei izendatzean datza, besteak beste, mantenu-programak, ikuskatzeak, eta abar.).

22.1 DETEKTATUTAKO ARRISKUAK KONTROLATZEKO, LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA KANPOKO LARRIALDI-ZERBITZUEN ESKU-HARTZEA ERRAZTEKO NEURRIEN ETA BALIABIDEEN (PERTSONAK ZEIN TRESNAK) INBENTARIOA ETA DESKRIPZIOA.

Atal honetan autobabes-neurri eta -baliabideak (baliabide materialak eta giza baliabideak) islatu eta aztertu behar dira, egokiak eta nahikoak diren erabakitzeke.

A	AUTOBABESERAKO NEURRIAK ETA BALIABIDEAK	BALIABIDE MATERIALAK

Atal honen xedea da eraikinean dauden babeserako baliabide guztiak **IDENTIFIKATZEA** eta **KOKATZEA**. Establezimenduek eduki beharreko instalazioak hementxe datoz jasota:

- **ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOA:** SEGURTASUNA SUTEA DENEAN, OINARRIZKO DOKUMENTUA, SI 4 ATALA: SUTEA ANTZEMATEA, KONTROLATZEA ETA AMATATZEA.
- **2267/2004 ERREGE DEKRETUA**, abenduaren 3koa, INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUETAKO SUTEEEN AURKAKO SEGURTASUN ARAUDIA onesten duena.
- Horiek ordeztu edo osatzen dituzten arauak.

Jarraian zera deskribatzen da:

- Eraikinean **ZER EKIPAMENDU DAGOEN**, instalazioak suteen aurka babesteko, eta elementu bakoitzaren ezaugarriak, kokapena, egokitzapena, dotazio-maila, mantentze-egoera, eta abar.
- **ELEMENTU BERRIAK JARTZEKO PROPOSAMENA**, baldin eta eraikinak horiek behar baditu, aurrean aipatutako araudiak hala ezartzen duelako.

Suteen aurkako BABES-INSTALAZIO ohikoenak hauexek dira:

- Su-itzalgailuak.
- Ur-hartune hornituak.
- Suteak detektatzeko sistemak.
- Sute alarma sistemak.
- Eskuzko pultsadoreak.
- Kanpoko hidranteak.
- Zutabe lehorrak.
- Ur-ihinztargailu automatikoak.
- Larrialdietako argiztapena.
- Eta abar.

Aurretiaz aipatu den arautegian zehazten da babes-ekipo bakoitza noiz eduki beharko den ezinbestek eta horiek bete beharreko baldintzak, bai kokapenari dagokionez eta baita mantentze-lanei dagokionez.



Solairu bakoitzeko babes-neurriekin antzeko taula bat presta daiteke:

INSTALAZIOA		KOPURUA	OHARRAK
SU-ITZALGAILUAK			
ALARMAREN TRASMISIOA (megafonia-instalazioa)			
ESKUZKO PULTSADOREAK			
UR-HARTUNE HORNITUAK			
SU DETEKTOREAK			
LARRIALDIETAKO ARGITAPENA			

ADIBIDEA: SU-ITZALGAILU ERAMANGARRIAK. Lehen aipatutako ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAK ezartzen du eraikinak su-itzalgailu eramangarri bat izan behar duela ibilbideko 15 m-ko, solairu guztietan, gehienez, eta, batez ere, ebakuazioaren abiapuntutik.

Zentzu horretan, XXXXX Ikastetxeak, guztira, 60 su-itzalgailu eramangarri dauzka. Su-itzalgailu horiek guztiak egokiro irudikatuta daude AUTOBABESERAKO BALIABIDEEN KOKAPEN-PLANOETAN, hau da, dokumentu honetako 4.3 atalean.

9.JARDUERA honen bitartez aipatutako babes-neurrien inguruan sakontzen ahaleginduko gara. Horretarako, su-itzalgailuekin egin duguna suteen aurkako beste ekipo batzuekin egingo dugu baita ere. Osatu ondoko esaldiak:



IRAKASKUNTZAREN ERABLERAKO ERAIKINEN kasurako ezarrita dauden SUTEEN AURKAKO EKIPOEN dotazioak:

- Ur-hartune hornituak eraikitako azalera ____ **(1)** ____ baino handiagoa bada.
- Zutabe lehorraren instalazioa ebakuazio-altuera ____ **(2)** ____ baino handiagoa bada.
- Alarma-sistema eraikitako azalera ____ **(3)** ____ baino handiagoa bada.

1		2		3	
2.000 m ²	A	24 metro	A	1.000 m ²	A
5.000 m ²	B	50 metro	B	3.000 m ²	B
20.000 m ²	C	500 metro	C	20.000 m ²	C

Jarraian erabiltzaileen ebakuazioarekin lotutakoak aztertu behar dira. Horretarako, **ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN, SI3 SEKZIOKO "SEGURTASUNA SUTEA DENEAN"** 3. eta 4. ataletako ezaugarriak jarraituko dira.

- 3.ATALA: Irteeren kopurua eta ebakuazio-ibilbideen luzerak. Ondoko kasuak bereiten dira:
 - Solairuko irteera bakarra duten esparruak.
 - Solairuko irteera bat baino gehiago duten esparruak.
- 4.ATALA: Ebakuazio-baliabideen neurriak. Besteak beste, ondokoen ebakuazio-ahalmenak zehazten dira:
 - Ateak.
 - Pasabideak eta arrapalak.
 - Jesarleku-hilaren arteko tartekak.
 - Babestutako eta babestu gabeko eskailerak.
 - Eta abar.

ADIBIDEA: PASABIDEA

	-Lehen solairuan dago. -Zabalera erabilgarria 1,42 metrokoa da. -Harmailetako alde bietan dauden eskailerekin komunikatuta dago. -Lehenengo solairuko korridore nagusia da. -Beheko solairurako eskailerekin komunikatzen du bere alde batean.		
	XEHETASUNAK		
ZABALERA ERABILGARRIA (metroak)	1,42	EBAKUAZIO-AHALMENA (Pertsona-kopurua)	284

ADIBIDEA: ATEA

	-Beheko solairuko aldagelen pasabidea eta atari nagusikoa komunikatzen duen atea da. -Orri bikoitzeko atea da. -Zabalera erabilgarria 1, 78 metrokoa da.		
XEHETASUNAK			
ZABALERA ERABLGARRIA (metroak)	1,56	EBAKUAZIO-AHALMENA (Pertsona-kopurua)	312

ADIBIDEA: ESKAILERAK

	-Harmaila azpiko pasabidean kokatzen da. -Beheko solairua eta lehena komunikatzen ditu. -Zabalera erabilgarria de 1,49 metrokoa da.		
XEHETASUNAK			
ZABALERA ERABLGARRIA (metroak)	1,49	EBAKUAZIO-AHALMENA (Pertsona-kopurua)	238
BESTEAK			
BARANDAK			
ESKUBANDAK			
EZ LABAINTZEKO ZINTA			
MAILA			
KONTRAMAILA			

B

**AUTOBABESERAKO
NEURRIAK ETA BALIABIDEAK****GIZA
BALIABIDEAK**

Atal honetan AUTOBABES-PLANEAN arduraren bat duten pertsonen islatuko dira.

**FUNTZIOEN ASIGNAZIOA**

IZENA	KARGUA	LANPOSTUA	TELEFONOA


22.2 ESKURA DAUDEN NEURRIAK ETA BALIABIDEAK (PERTSONAK NAHIZ TRESNAK), SEGURTASUNARI BURUZKO XEDAPENEI JARRAIKI.

Segurtasun-baldintzak erregulatzeko berariazko araudiei lotutako instalazio edo jarduera egongo balitz, behar bezala jaso behar dira AUTOBABES-PLANEAN.

AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAN aipatzen denez, 4.kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

- Autobabeserako baliabideek duten kokapenaren planoak, UNE arautegiaren arabera.
- Ebakuazio-ibilbideen eta barruko babestokien planoak, ebakuatu edo leku itxian geratu beharreko pertsonen kopurua adierazita, arautegiari jarraiki.
- Arrisku-guneen edo -sektoreen banaketa-planoak.

ADIBIDEA: LEA ARTIBAI IKASTETXEKO DEPENDENTZIA BAKOITZEAN DAUDEN PLANOAK. Besteak beste, honakoak islatzen dira plano horietan: suteen aurkako ekipoak, larrialdietako argiztapena, ebakuazio-ibilbidea eta ezarritako batzeko puntuak.



23. 5. KAPITULUA: INSTALAZIOAK MANTENTZEKO PROGRAMA

Kapitulu honen helburu nagusia eraikinean dauden instalazio guztien mantenu-programa egokia bermatzea da.

23.1 DESCRIPCION DEL MANTENIMIENTO PREVENTIVO DE LAS INSTALACIONES DE RIESGO, QUE GARANTIZA EL CONTROL DE LAS MISMAS.

Horietako batzuk **INDARREKO ARAUDIAREN ARABERAKO SEGURTASUN-IKUSKAPENAK EGITEAREN** menpe daude. Izan ere, arrisku-instalazioak direnez, kontrolerako araudi espezifikoak dituzte. Guzti hori 5.3 atalean azalduko da, **"INDARREKO ARAUDIAREN ARABERAKO SEGURTASUN-IKUSKAPENAK EGITEARI"** dagokiona.



Hala ere, normalean aipatutako **INDARREKO ARAUDIAREN ARABERAKO SEGURTASUN-IKUSKAPENAK** egiterik ez duten baina arriskutsuak izan daitezkeen beste zenbait instalazio edo gune egoten dira, eta ezinbestekoa da baita ere horiek egoera onean daudela bermatzea, besteak beste, eskaileren egoera, megafonia-instalazioa, ateen egoera, ebakuazio-ibilbideen egoera, sarbideak, dutxa eta komunen egoera, hondakinak, biltegiak, eta abar.

Beraz, **INDARREKO ARAUDIAREN ARABERAKO SEGURTASUN-IKUSKAPENAK** gain, aipatutako beste horiek kontrolpean izateko MANTENU-PROGRAMA egoki bat abian jartzea komeni da. Kasuan kasu, enpresako mantenu-saileko kideek gauzatu dezakete edota bestela, kanpoko enpresa espezializatuek.

23.2 ARRISKUZO INSTALAZIOETAKO PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN DESKIPZIOA, HAIEN KONTROLA BERMATZEN DUENA.

SUTEEN AURKAKO BABES-INSTALAZIOEN ARAUDIAREN (1942/1993 ED) arabera, instalazio horiek eta babes-neurriek **PREBENTZIO-TRATAMENDU MINIMO** bat izan behar dute, egoera onean daudela eta ondo erabiltzen direla bermatzeko.

Araudi horretan ekipo bakoitzari dagokion PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN deskripzioa ezartzen da.

Jarraian, SU-ITZALGAULU ERAMANGARRIEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN deskripzioa ikus daiteke.

KONPROBATZEA	MAIZTASUNA			
	3 hilabete	6 hilabete	1 urte	5 urte
	titularrak egina		kanpoko enpresa batek egina	
Irisgarritasun baldintzak	X			
Seinaleztapena	X			
Itxuraz ondo mantenduta egotea	X			
Seguru, zigilu, testu eta abarren begizko ikuskapena.	X			
Pisua eta presioa konprobatzea, hala badagokio	X		X	
Alde mekanikoen (pita, balbula, mahuka eta abar) egoeraren begizko ikuskapena.	X		X	
Presioa konprobatzea (<i>retimbrado</i>)				X

10.JARDUERA: Jarraian, ondorengo kasuentzako, su-itzalgaileentzako erabili dugun moduko taula bana prestatzea eskatzen zaizu:



- UR-HARTUNE HORNITUAK.
- SUA ITZALTZEKO INSTALAZIO AUTOMATIKOAK.
- ESKUZKO ALARMA-SISTEMAK.

Oharra: eskatutako ekipoei dagokien MANTENTZE PREBENTIBOAREN PROGRAMA SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOEN ARAUDIAN ezarrita dago (1942/1993 E.D.).

23.3 SEGURTASUNEZKO IKUSKATZEAK EGITEA, ARAUTEGIARI JARRAIKI

Adibide gisa, jarraian, ARAUTUTAKO IKUSKAPENEN mende dauden enpresa hipotetiko bateko instalazio batzuk aurkezten dira.

Ikuskapen horiek BAIMENDUTAKO KONTROL-ORGANISMOAK burutu behar ditu, bakoitzari dagokion maiztasun eta irismenarekin.



ADIBIDEAK:

ARAUZKO BERRIKUSPENEN ARABERAKO INSTALAZIOAK

INSTALAZIOA	Instrukzio teknikoa	Maiztasuna	Azken berrikuspenaren data	Hurrengo berrikuspenaren data
Kloroa gordetzea	MIE – APQ 1	5 urtero		
Igogailua	ITC-MIE-AEM 1	2 urtero		
Ur beroaren galdarak	MIE – AP 1	5 urtero		
BT instalazio elektrikoa	REBT	5 urtero		

Puntu honetara iritsita apurtxo bat gehiago sakontzen ahaleginduko gara **11. JARDUERA** honen bitartez. Aipatzen den kasu bakoitza aztertu eta esan ea zeure ustez, ARAUZKO BERRIKUSPENEN ARABERAKO INSTALAZIOAK badira, eta ondorioz, BAIMENDUTAKO KONTROL-ORGANISMOEN batengana jo behar bada:



Zkia	INSTALAZIOA	BAI	EZ
1	Dutxak eta komunak		
2	Galdarak		
3	BT instalazio elektrikoa		
4	Gas-instalazioa		
5	Igogailua		

Ikusteko ea zenbateraino betetzen den zeure ikastetxean legezko eskakizun hau **7. JARDUERA PRAKTIKO** hau planteatzen dizugu.

Osa ezazu taula bat ikastetxean dituzuen ARAUZKO BERRIKUSPENEN ARABERAKO INSTALAZIO posibleekin. Gero, irakaslea arduratuko da mantenu-departamentukoekin kontrastatzen, edo hobeto oraindik, gelara etortzeko esaten, gai honen inguruan izan daitezkeen galderak argitzeko.

AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAN aipatzen denez, 5.kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta INSTALAZIOEN ARAUTEGIEI jarraiki, orri zenbakituen liburuxka batean agertuko dira egindako:

- MANTENTZE-LANAK.
- SEGURTASUN-IKUSKAPENAK.

MANTENTZE-LANEN zein ARAUTUTAKO BERRIKUSPEN horietatik sortzen den informazioa eta horien ondoriozko, kontrol-erregistroak, adostasun edo/eta ekintza zuzentzaileak barne, behar bezala dokumentatu eta gordeko dira.

Ohikoena, informazio guzti hori, MANTENU-DEPARTAMENDUETAN izan edo egoten da, izan ere, lan horiek egin eta kontrolatzearen arduradunak izaten baitira kasu gehienetan.

AUTOBABESERAKO EUSKAL-ARAUAK “ERREGISTRO-LIBURUA” izatea beharrezkoa dela, nor izango den arduraduna, hura gordetzeko eta eguneratuta mantentzeko zehaztu behar delarik.

24. 6. KAPITULUA: LARRIALDIETARAKO JARDUERA-PLANA

LARRIALDI EGOERETAKO PLANAREN HELBURUA LARRIALDIAK hasierako fasean **KONTROLATZEKO EKINTZAK DEFINITZEA DA**. Horren barruan **ALARMA, EBAKUAZIOA eta LAGUNTZA** bermatu behar dira.

LARRIALDI EGOERETAKO JARDUERA-PLANEAN jasotzen diren egoerak aurreko ataletatik sortu dira, dauden arriskuak, non dauden eta horiei aurre egiteko baliabide teknikoak eta giza baliabideak **EZAGUTU** ondoren. **INDARREAN EGOTEKO, LARRIALDI EGOERETAKO JARDUERA-PLANAK** hiru galdera hauei erantzun behar die argi eta zehatz:

- ZER EGINGO DA?
- NORK EGINGO DU?
- NOIZ?
- NOLA?
- NON EGINGO DA?



GIZA ANTOLAKUNTZA ETA HORI ERRAZTEKO BALIABIDEAK KOORDINATUZ.

Aurretik esan dugun moduan, **LARRIALDI** egoera hauxe da: gertaera bat, zeinen ondorioak oso arin ematen diren eta neurriz kanpoko proportzioak eta oso larriak har ditzakeen, hasieratik kontrolatzen ez badira. **LARRIALDI egoera batean ez dago astirik erabakitzeo nork eta nola jardungo duen**. Hori lortzeko, **LARRIALDI** edo **AUTOBABESERAKO PLANA** ezarriko da, eta hori praktikan jartzeko **ENTRENAMENDU** egokia.

LARRIALDI EGOERA batean ez dago denbora nahikorik zer egin eta nork egin erabakitzeo. Ezinbestekoa da, beraz, larrialdi plangintza bat izatea eta berau praktikara eramateko behar beste entrenamendu-saio egitea.

24.1 LARRIALDIEN IDENTIFIKAZIOA ETA SAILKAPENA.

LARRIALDIAK IDENTIFIKATU ETA SAILKATZEA hauen arabera egiten da:

- ARRISKU MOTA
- LARRITASUNA
- HORIEK KONTROLATZEKO ZAILTASUNAK
- OKUPAZIOA
- GIZA BALIABIDE ETA BALIABIDE MATERIALEN ESKURAGARRITASUNA

OHARRA: Arriskuen sailkapena 10.3 atalean aztertu dugu jadanik.

Zentzu honetan, eta aurretik aipatutako arriskuak kontuan hartuz, normalean kontuan hartzen diren **LARRIALDI EGOERA ARRUNTENAK** hauek direla:



- LESIO LARRIAK KIROL
- OSASUN KRISI LARRIAK
- INGURUMEN ARLOKO LARRIALDI EGOERA
- UHOLDEA
- SUTEA
- BONBA-MEHATXUA
- ETA ABAR.

24.2 LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURAK.

LARRIALDI EGOERA BAT kontrolatzea eta bertan dauden pertsonen **SEGURTASUNA BERMATZEA AUTOBABESERAKO PLANA AKTIBATU** eta **AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK MOBILIZATZEKO AZKARTASUNAREN ARABERAKOA** da, neurri handi batean.

Atal honetan definitzen dira **AUTOBABESERAKO PLANEAN** inplikaturako langile guztien **JARDUERAK**, **PLANEAN** aurreikusitako edozein **LARRIALDI EGOERAREN** aurrean burutu beharrekoak:

A	DETEKTATZEA ETA ALERTA	
B	ALARMA MEKANISMOAK	
C	LARRIALDI BATEN AURREKO ERANTZUN-MEKANISMOAK	
D	EBAKUAZIOA EDO/ETA KONFINAMENDUA	
E	LEHEN SOROSPENAK EMATEA	
F	KANPOKO LAGUNTZAK JASOTZEKO MODUAK	

A

DETEKTATZEA ETA ALERTA

AUTOBABESERAKO PLANA AKTIBATZEN duten eta larritasunaren arabera **BALIABIDEAK MARTXAN JARTZEN DITUZTEN** jarduerak dira.

Gertakari edo istripu bat egon denean, beharrezko neurriak hartu behar direla adierazten digun egoera da. **EGOERA HORRETAN, PLANAREN INGURUKO ARDURA DAUKATEN LANGILEAK AKTIBATU EGIN BEHAR DIRA.**

LARRIALDIA DETEKTATZEKO sistemak honakoak izan daitezke:

- Administrazioak fenomeno naturalak **IRAGARTZEKO** dituen **SISTEMAK**.
- Ihes, sute eta abarretarako **DETEKZIO AUTOMATIKOA**.
- Gainerako kasuetan, **PERTSONEN DETEKZIOA**.



8. JARDUERA PRAKTIKOA. Ikastetxean dituzuen DETEKTATZE eta ALERTA-SISTEMAK zerrendatzea eskatzen zaizu.

B

ALARMA MEKANISMOAK

ALARMAREN definizioa: eraikinean dauden pertsonen larrialdi egoera batean jarraitu beharreko jarraibideen inguruko informazioa ematen dien abisua.

ALARMA horren berri eman behar dute **BALIABIDE TEKNIKOAK** edo **ALARMA ETA EBAKUAZIO EKIPOKO LANGILEEK**. Eman beharreko abisuak bi motakoak izan daitezke:

- **LANGILE** edo/eta **ERABILTZAILEEI ABISUA EMATEA**.
- **KANPO LAGUNTZEI ABISUA EMATEA**.



9. JARDUERA PRAKTIKOA. Ikastetxean dituzuen **ALARMA-SISTEMAK** zerrendatzea eskatzen zaizu.

C

LARRIALDI BATEN AURREKO ERANTZUN-MEKANISMOAK

LARRIALDI BATEN AURREKO ERANTZUN-MEKANISMOAK hurrengo eginkizunetan oinarritzen dira:

- Dauden erantzun-baliabideen eragite automatikoa.
- **ALARMA-** eta **EBAKUAZIO-TALDEKOEK** emandako jarraibideak jarraitu.
- Larrialdi-ekipoetako kideak mobilizatu.



10. JARDUERA PRAKTIKOA. Ikastetxean dituzuen **LARRIALDI BATEN AURREKO ERANTZUN-MEKANISMOAK** zerrendatzea eskatzen zaizu.

D

EBAKUAZIOA EDO/ETA KONFINAMENDUA

ERAIKINA guztiz edo zati batean **EBAKUATZEKO** lana bertako **ALARMA ETA EBAKUAZIO-TALDEKOEK** koordinatuko dute eta horretarako prestatuta dauden bideak erabiliko dira. Bide horiek behar bezala seinaleztatuta egon behar dira.



OHARRA: gai hau era monografikoan aztertuko dugu **UNITATE DIDAKTIKO** honen 29. atalean.

E

LEHEN SOROSPENAK EMATEA

Oinarrizko **LEHEN SOROSPENAK** ematea **LEHENENGO ESKU-HARTZEKO TALDEKO** kideen esku egoten da normalean. Horiek arlo horretako oinarrizko prestakuntza izango dute. Geroago jorratuko dugu sakonago atal hau.



F

KANPOKO LAGUNTZAK JASOTZEKO MODUAK

Kanpoko laguntzei **HARRERA** egingo dien pertsona **LARRIALDIETAKO ARDURADUNA** izaten da normalean eta bera ez badago edo ordezkari bat utzi behar badu, momentu horretan eraikineko arduraduna dena.



Honako informazioa emango da, gutxienez:

- Eraikineko zein lekutan izan den istripua.
- Horren ezaugarriak.
- Istripuaren lekutik hurbil dauden lekuen arriskuak.
- Ebakuazioan gertatutako gorabeherak, beharrezkoa balitz.
- Zaurituta edo harrapatuta dagoen jendea dagoen edo ez.
- Eta abar.

BEHAR DITUZTEN DATUAK EMANGO ZAIZKIE.

OHARRA: **PLAN HONEN EZARPEN-FASEAN**, istripua gertatzekotan lekura bertaratuko direla aurreikusten den **KANPO-LAGUNTZAKO ARDURADUNEKIN** bilerak egitea komeni da.

24.3 LARRIALDIETAKO JARDUERAK EGINGO DITUZTEN PERTSONEN ETA TALDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA ZEREGINAK

AUTOBABESERAKO PLANEAN erantzukizunen bat duten ekipoetako kideak lehen azaldu dira, “**GIZA BALIABIDE ETA BALIABIDE ETA NEURRI MATERIALEN INBENTARIOA ETA DESKRIBAPENA**” izeneko 4.1. atalean. Helburu hauetarako baliabideez ari gara:

- Antzemandako arriskuak kontrolatzeko.
- Egon daitezkeen larrialdi egoerei aurre egiteko.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea errazteko.

FUNTZIOEI dagokienez, **LARRIALDI TXIKIA** edo **EZ ZORIGAIZTOKOA** den kasuetan, **LEHENENGO ARRETA KO EDOZEIN LANGILEK** emango du. Izan ere, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 20. artikulua arabera, **EGOERA HORIEI AURRE EGITEKO PRESTAKUNTZA EDUKI BEHAR DU.**



Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 20. Artikulua: *Enpresariak, enpresaren tamaina eta jardura eta enpresakoak ez diren pertsona kopurua kontuan izanda, egon daitezkeen larrialdi egoerak aztertu behar ditu eta beharrezko neurriak hartu lehen sorospen, suteen aurkako borroka eta langileen ebakuaziorako. Horretarako, **NEURRI HORIEK PRAKTIKAN JARTZEKO ARDURADUNA IZENDATU** behar da eta aldian-aldian ondo funtzionatzen dutela konprobatu, hala badagokio.*

*Langile horiek **PRESTAKUNTZA NAHIKOA** izan beharko dute, kopuru aldetik nahikoak izan eta material egokia izan, lehen aipatutako zirkunstantzien arabera.*

Hartutako neurriak aplikatzeko, enpresariak beharrezko harremanak antolatu beharko ditu enpresatik kanpoko zerbitzuekin, batez ere hauei dagokienez: lehen sorospenak, larrialdiko arreta medikoa, salbamendua eta suteen aurkako borroka, neurri horien eraginkortasuna eta arintasuna bermatuta geratzeko.

Atal honetan **AZALTZEN DIRA** talde bakoitzaren **FUNTZIO ESPEZIFIKOAK** eta **OSAGIAK**, eraikinaren **AUTOBABESERAKO PLANAREN** idazketan kontuan hartutakoak.

Kasu bakoitzeko eraikinaren tamaina, tipologia edota ezaugarrien arabera arduradun gehiago edo gutxiago egon baitaitezke ere, hona hemen ohikoenak:

- **AUTOBABESERAKO PLANAREN ZUZENDARIA**
- **JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIA**
- **LEHENENGO ESKU-HARTZEKO TALDEA**
- **BIGARREN ESKU-HARTZEKO TALDEA**
- **SOLAIRU, GUNE EDO SEKTOREKO ARDURADUNA**
- **ALARMA ETA EBAKUAZIO EKIPOA**
- **MEGAFONIA ETA ALARMA TRANSMISIOAREN EKIPOA**

Jarraian horietako bat garatuko da eta gainontzeko batzuk zuen esku utziko dugu, jarduera gisa planteatuko baitira. Horrela, bakoitzaren ikastetxeko errealitatea ezagutzeko aukera izango duzue.

Eskuartean erabiliko dugun informazioa bateratzeko asmoz, jarraian aurkeztzen den moduko taulak erabiliko dira aurrerantzean.

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
A	JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIA

IDENTIFIKAZIOA			
KOKAPENA		TELEFONOA	
FUNTZIOAK			
-Instalazioen SEGURTASUNAREN arduradun zuzena da. -Bere agindupeko SEGURTASUN-TALDEKO kideak proposatu eta hautatuko ditu. -SEGURTASUN-TALDEKO langileen entrenamendua antolatuko du. -MANTENTZE-LANEN ARDURADUNAK uneoro emango dio informazioa dauden segurtasun eta babes elementuen egoera eta funtzionamenduaren inguruan. -AUTOBABESERAKO PLANA ezagutuko du eta dagozkion aspektuetan eguneratuta edukitzeaz arduratuko da. -AUTOBABESERAKO PLANAREN ZUZENDARIARI planaren inguruan antzematen dituen irregulartasun eta beharrian guztien berri emango dio. Horretarako, horiek jasotzeko erregistro edo fitxategi bat izango du eta instalazioen segurtasun-sistemetan antzematen diren gorabehera guztiak jasoko dira. -Instalazioetako giltza guztiak eta energia-hornidura mozteko etengailu orokorren funtzionamendua ezagutuko du. -Simulakroak prestatzen eta burutzen parte hartuko du. -Istripu kasuetan, bere agindupeko ekipoaren jarduerak bideratuko ditu. Ebakuazio kasutan, kanpoko ateak irekita eta oztoporik gabe izateko agindua emango du. -Larrialdi mota izendatuko du. -Alarma nagusia emateaz eta hori amaitutzat emateaz arduratuko da. Erabaki hori KANPOKO LARRIALDI ZERBITZUETAKO BURUAREKIN batera hartuko du, horiek esku-hartzen duten kasuetan. -Ahal duen laguntza guztia emango die KANPOKO ESKU-HARTZE ZERBITZUEI.			

11. JARDUERA PRAKTIKOA. Zein da zuen ikastetxeko JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIAREN izena?.

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
B	LEHENENGO ESKU-HARTZEKO TALDEA

IDENTIFIKAZIOA	
KOKAPENA	TELEFONOA
FUNTZIOAK	
-Behar duten pertsonen lehen sorospenak ematea. -Eskuragarri dauden lehenengo esku-hartzeko baliabide materialen berri izatea eta nola erabiltzen diren jakitea. -Haien artean koordinatzea istripuen ondorioak ezereztu edo ahal beste arintzeko. -Prebentzio lana burutzea, suteen prebentzioaren inguruko funtsezko arauen ezagutzarekin lotuta. -Sute txikiak itzaltzeko su-itzalgailu eramangarriak erabiltzea. -Bigarren esku-hartzeko ekipoetako kideei laguntzea, beharrezkoa denean.	

12. JARDUERA PRAKTIKOA. Zeintzuk dira zuen ikastetxeko LEHENENGO ESKU-HARTZEKO TALDEKO partaideak?

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
C	ALARMA ETA EBAKUAZIO EKIPOA

IDENTIFIKAZIOA	
KOKAPENA	TELEFONOA
FUNTZIOAK	
-Ebakuzio bideen berri ematea eta jendea horietara bideratzea. -Ateetan jartzea ebakuazioaren abiadura kontrolatu eta jende-pilaketarik ez egoteko. -Eskaileretarako sarbideetan pertsonen joan-etorria kontrolatzea. -Sute egoeretan inori igogailua erabiltzen ez uztea. -Ebakuatutako pertsonak kanpora ematen duten ateen ondoan geratzea saihestea. -Esandako lekuen ebakuazioa konprobatzea.	

13. JARDUERA PRAKTIKOA. Zeintzuk dira zuen ikastetxeko ALARMA ETA EBAKUAZIO TALDEKO partaideak?

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
D	MEGAFONIA ETA ALARMA TRANSMISIOAREN EKIPOA

IDENTIFIKAZIOA	
KOKAPENA	TELEFONOA
FUNTZIOAK	
-Dagozkion arduradunak lokalizatzea (alarma mugatua). -Enpresako megafoniaren bidez dagozkion abisuak ematea. -Alarma orokorra aktibatzea, hala dagokionean. -KANPOKO ESKU-HARTZE taldeekin harremanetan jartzea, hala eskatzen zaionean. -JARDUERA-ARDURADUNAREKIN koordinatuta egongo da uneoro.	

14. JARDUERA PRAKTIKOA. Zeintzuk dira zuen ikastetxeko MEGAFONIA ETA ALARMA TRANSMISIOAREN TALDEKO partaideak?



Ez dizugu dena eginda emango ezta?? **12. JARDUERA** honen bitartez ondorengo taulak betetzea eskatzen zaizu, kasuan kasuko ekipoen funtzioak jarritz:



24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
X	LARRIALDI-BURUA

FUNTZIOAK	

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
Y	BIGARREN ESKU-HARTZEKO TALDEA

FUNTZIOAK	

24.3	IDENTIFIKAZIOA ETA FUNTZIOAK
Z	SOLAIRU, GUNE EDO SEKTOREKO ARDURADUNA

FUNTZIOAK	

Jarduera jakin eta zehatzak eskatzen dituzten larrialdi-egoerak hiru multzo nagusi hauetan sailka daitezke:

- **ALARMA-JARDUERAK:** AUTOBABES-PLANA aktibatu eta larrialdi-egoeraren larritasunaren arabera, beharrezkoak diren baliabideak mobilizatzean datza.
- **ESKU-HARTZE JARDUERAK:** Larrialdi-egoerak kontrolatzeko izendatutako eta trebatutako esku-hartze taldeetako kideek burutzen dituzten jarduerak dira.
- **EBAKUAZIO-KARDUERAK:** Larrialdi-egoera orokor baten ondorioz eraikinaren uztea bideratzeko burutzen diren jarduerak dira.

24.4 LARRIALDI PLANA MARTXAN JARTZEKO ARDURADUNAREN IZENA.

LARRIALDIETARAKO JARDUERA-PLANA MARTXAN JARTZEAREN ARDURADUNA izan daiteke, adibidez, **PLAN** horretaz arduratzen dena, **ERAIKINAREN AUTOBABESERAKO PLANAREN ZUZENDARIAREN** ikuskaritzapean. Dena de, kasuan kasu aukera ezberdinak eman daitezke.



25. 7. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANA GORAGOKO PLAN BATZUETAN TXERTATZEA

Atal honen helburua hau da: ezartzen ari garen **AUTOBABESERAKO PLANA** GORAGOKO MAILA BATEKO PLAN BATZUEKIN (**UDALERRIKO LARRIALDI PLANA ETA EAE-KO LARRIALDI PLANA**) ELKAR ERLAZIONATZEKO BEHARREZKO **KOORDINAZIO-PROTOKOLOAK** EZARTZEA.

Kapitulu honetan honako atalak aztertuko dira:

25.1 LARRIALDIA JAKINARAZTEKO PROTOKOLOAK.

Udalerrri guztiek izan beharko lituzke bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako **LARRIALDIETARAKO UDAL PLANA**. Ondorioz, **AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAK (277/2010 DEKRETUA)** ezartzen duenez, **GORAGOKO MAILAKO PLAN** bat denez, plan biak **ELKAR ERLAZIONATZEKO** beharrezko **KOORDINAZIO-PROTOKOLOAK** ezarri beharko lirateke.


Atal honetan azaltzen dira **ENPRESAN** egon daitezkeen larrialdien inguruan **KANPORAKO JAKINARAZPENAK EGITEKO PROTOKOLOAK**. Egoera hori emango litzateke enpresako baliabideak ez direnean nahikoak larrialdi egoera kontrolatzeko eta **KANPO ZERBITZU ESPEZIALIZATUEI** laguntza eskatu behar zaienean.

6. KAPITULUAN aipatu den moduan, **LARRIALDIA DETEKTATZEKO** sistemak hauek izan daitezke:


- Administrazioak fenomeno naturalak **IRAGARTZEKO** dituen **SISTEMAK**.
- Ihes, sute eta abarretarako **DETEKZIO AUTOMATIKOA**.
- Gainerako kasuetan, **PERTSONEN DETEKZIOA**.

Hau da, **BI LARRIALDI MOTA** bereizi daitezke:

KANPOKOAK: Hurbileko jarduera arriskutsurik ezean kontuan izan beharreko aktibikate arriskutsuak fenomeno naturalen atalean barne hartutakoak izango lirateke, funtsean. **KASU HONETAN, JAKINARAZPENA KANPOTIK BARRURA JOANGO LITZATEKE ETA DAGOZKIEN ORGANISMO PUBLIKOEK EMANDAKO ZUZENTARAUEN ARABERA JARDUNGO LITZATEKE.**



- **BARRUKOAK:** Enpresaren barruan gertatutakoak lirateke; hau da, istripuak, ihesak, isuriak, suteak, leherketak, bonba-abisuak eta abar. **KASU HONETAN, JAKINARAZPENA KANPOTIK BARRURA JOANGO LITZATEKE.**



KANPO-LAGUNTZA ESKAERA informazio-protokolo honen arabera egingo da:

- Eskaera egiten duen pertsona identifikatzea.
- Deitzen den telefono zenbakia.
- Kiroldegiaren kokapena.
- Larrialdi egoera: sutea, gaixotasuna, istripua, leherketa eta abar.
- Larrialdiaren kokapena: eragindako solairua eta instalazioak.
- Larritasuna (sute-mota, istripu-mota eta abar).
- Eragindako pertsonak.

BEHIN ASPEKTU HAUEK JAKINARAZITA:

- SOS DEIAK-112 ZERBITZUKO LANGILEEN ALDETIK EGITEN DIREN ESKAKIZUNEI ERANTZUNGO ZAIE.
- HARREMANETARAKO TELEFONOA MANTENDUKO DA ERABILI GABE, SOS DEIAK-112 ZERBITZUKO BESTE DEI BAT JASOKO BALITZ ERE.



25.2 AUTOBABES-PLANAREN ZUZENDARITZAREN ETA AUTOBABES-PLANA TXERTATZEN DEN BABES ZIBILEKO PLANAREN ZUZENDARITZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Ideala kolaborazioa bidirekzionala izatea litzateke, alde batetik, aholku espezializatua eskaini, eta bestetik, eraikina hobeto ezagutzeko ikuskatzeak egiteko.

Garrantzitsua da **AUTOBABESERAKO PLANA** egin bitartean, beharrezkoak diren bilerak izatea KANPOKO-ZERBITZU espezializatuarekin: udaltzaingoa, ertzaintza, gurutze gorria, suhiltzaileak, osasun-zentroa, eta abar.

UTOBABESERAKO PLANAREN (dokumentu eguneratua) informazioa UDAL KOORDINAZIO ZENTROAN eta ERAIKINEAN BERTAN egotea komeni da, zehazki "KANPO LAGUNTZA ESPEZIALIZATUETARAKO" buzoi espezifiko batean.



25.3 AUTOBABES ANTOLAKETAREN ETA BABES ZIBILEKO SISTEMA PUBLIKOAREN PLANEN ETA JARDUEREN ARTEKO ELKARLANA.

KANPO-LAGUNTZAKO TALDEEK informazioa edukiko dute irisgarritasunari, larrialdietako ibilgailuak sartzeko lekuei eta eraikineko instalazioei buruz. Horretarako, aurretik aipatutako organismoetako bakoitzarekin bilerak egingo dira, aspektu guzti horiek zehazteko.



26. 8. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANAREN EZARPENA

AUTOBABES-PLANAREN EZARPENAK
PLANA ABIAN JARTZEA DU HELBURU.

Kapitulu honetan honako atalak aztertuko dira:



26.1 PLANAREN EZARPENAZ ARDURATUKO DEN PERTSONAREN IDENTIFIKAZIOA

Normalean, AUTOBABES-PLANAREN ezarpena PLANAREN ZUZENDARIAREN edo JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIAREN ardurapean egoten da. Bere eginkizun nagusiak ezarpenerako programa eta ezarpen-jarduerak ONARTU eta JARRAIPENA egitea da. Hala ere, berez, eskakizun legal hau abian jartzearen arduraduna JARDUERAREN TOTULARA da.

26.2 AUTOBABES-PLANEAN PARTE-HARTZE AKTIBOA DUTEN LANGILEAK PRESTATZEKO ETA GAITZEKO PROGRAMA.

Noski, guztiz beharrezkoa da **ENPRESAREN AUTOBABESERAKO PLANEAN** erantzukizunen bat duten pertsonak eta **ESKU-HARTZE TALDE** desberdinetako kideek behar besteko **PRESTAKUNTZA** eta **GAITASUNA** edukitzea eman zaien lana berme guztiekin burutu ahal izateko.

Atal honen helburua, enpresaren ezaugarriak, egon daitezkeen arrisku potentzialak eta langileen aldetik lortzea nahi den erantzunari egokitutako **PRESTAKUNTZA**- eta **GAITZE-PLANA** ezartzea litzateke.

PRESTAKUNTZA OROKORRA edozein dela ere, 8.3 atalean deskribatuko den **EMPRESAKO LANGILE GUZTIEI** zuzenduta egongo da **PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKO** hau, pertsona edo/eta talde bakoitzak burutuko duen funtzioaren arabera:

- **AUTOBABESERAKO PLANAREN ZUZENDARIA**
- **JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIA**
- **LEHENENGO ESKU-HARTZEKO TALDEA**
- **BIGARREN ESKU-HARTZEKO TALDEA**
- **SOLAIRU, GUNE EDO SEKTOREKO ARDURADUNA**
- **ALARMA ETA EBAKUAZIO EKIPOA**
- **MEGAFONIA ETA ALARMA EMATEAREN EKIPO ARDURADUNA**

ADIBIDE BATZUK AURKEZTUKO DIRA JARRAIAN:

26.2	PRESTAKUNTZA-PROGRAMA
A	JARDUERA-PLANAREN ZUZENDARIA

NORK EMANDA	
DATA	IRAUPENA
PROGRAMA	
-AUTOBABESERAKO PLANAREN ANALISI ZEHAZTUA. -AUTOBABESERAKO PLANEAN aurreikusitako arduradunak eta ekipoak izendatzea. -Kiroldegian antzemandako arriskuak. -Alarma kasuetarako jarraibideak eta ezarritako babes-neurriak. -Seinaleztapen plana. -Esku-hartze prozedura orokorrak. -Nola orientatu kiroldegiko ebakuazio nagusia. -Larrialdi egoeran nola jokatu. -KANPO-LAGUNTZA jasotzearen inguruko prozedura	

26.2	PRESTAKUNTZA-PROGRAMA
B	LEHENGO ESKU-HARTZE TALDEA

NORK EMANDA	
DATA	IRAUPENA
PROGRAMA	
-AUTOBABESERAKO PLANAREN helburu eta aspektu orokorrak. -AUTOBABESERAKO PLANEAN aurreikusitako arduradunak eta ekipoak izendatzea. -Kiroldegian antzemandako arriskuak. -Alarma kasuetarako jarraibideak eta ezarritako babes-neurriak. -Seinaleztapena. -Nola orientatu kiroldegiko ebakuazio nagusia. -Istripua jasan dutenei lehenengo sorospenak ematea. -Bihotz-biriketako bizkortzea egiteko oinarritzko teknikak. -Zaurituak garraiatzea.	

26.2	PRESTAKUNTZA-PROGRAMA
C	ALARMA ETA EBAKUZAIO EKIPOA

NORK EMANDA	
DATA	IRAUPENA
PROGRAMA	
-AUTOBABESERAKO PLANAREN helburu eta aspektu orokorrak. -AUTOBABESERAKO PLANEAN aurreikusitako arduradunak eta ekipoak izendatzea. -Kiroldegian antzemandako arriskuak. -Alarma kasuetarako jarraibideak eta ezarritako babes-neurriak. -Alarma emateko moduak. -Nola orientatu kiroldegiko ebakuazio nagusia. -Larrialdi egoeran nola jokatu. -Ezarritako bilera-guneak.	

26.2	PRESTAKUNTZA-PROGRAMA
D	MEGAFONIA ETA ALARMA EMATEAREN EKIPO ARDURADUNA

NORK EMANDA	
DATA	IRAUPENA
PROGRAMA	
-AUTOBABESERAKO PLANAREN helburu eta aspektu orokorrak. -AUTOBABESERAKO PLANEAN aurreikusitako arduradunak eta ekipoak izendatzea. -Jakinarazpen-prozedura eta KANPOKO LAGUNTZA eskatzea. -AUTOBABESERAKO PLANAREN arduradun desberdinak lokalizatzeko prozedura.	

13.JARDUERA SOLAIRU, GUNE EDO SEKTOREKO ARDURADUNAREN prestakuntza-programa potentzial bateko edukiak zehaztea eskatzen zaizu. Ea nola moldatzen zaren!!



26.2	PRESTAKUNTZA-PROGRAMA
X	SOLAIRU, GUNE EDO SEKTOREKO ARDURADUNAREN

PROGRAMA

26.3 LANGILE GUZTIAK AUTOBABES-PLANAREN INGURUAN PRESTATZEKO ETA INFORMATZEKO LANA.

ENPRESAKO LANGILE GUZTIEK (bertako langileekin elkarlanean aritzen diren kontratatuko langileak ere barne daude) PRESTAKUNTZA OROKORRA jaso beharko dute, eta eduki hauek hartuko dira barne:



- AUTOBABESERAKO PLANAREN helburu eta aspektu orokorrak. AUTOBABESERAKO PLANEAN aurreikusitako arduradunak eta ekipoak izendatzea.
- Enpresan antzemandako arriskuak.
- Alarma kasuetarako jarraibideak eta ezarritako babes-neurriak.
- Seinaleztapena.
- Esku-hartze programa orokorrak.
- Nola gauzatu eraikin bateko ebakuazio orokorra.
- Giza portaera larrialdi-egoeren aurrean.

Programa hori KONTRATATZEN DIREN LANGILE BERRIENTZAKO PRESTAKUNTZA PLANEAN ere gehituko da.

26.4 ERABILTZAILEAK ORO HAR INFORMATZEKO PROGRAMA.

ERABILTZAILEEI INFORMAZIOA ematea ezinbesteko babes-neurria da, bai larrialdiak saihesteko informazio prebentiboari dagokionez, baita larrialdi bat gertatzen denean hartu beharreko babes-neurriei dagokienez ere.

ERABILTZAILEEK INFORMAZIOA JASOTZEA funtsezkoa da, larrialdi egoera batean inplikaturako pertsonen jarrera positiboa eta kolaboraziozkoa lortzeko. HIRU INFORMAZIO-MAILA bereiziko ditugu:

26.3	ERABILTZAILEAK ORO HAR INFORMATZEKO PROGRAMA
A	INFORMAZIO PREBENTIBOA

Informazioa autobabeserako neurriei eta arriskuei buruzkoa da. helburua da kiroldegira doazen bisitariengan larrialdiak sortzea saihesten duten jarrerak sustatzea eta larrialdirik izatekotan nola jardun behar den jakinaraztea.

Informazio hori NORMALTASUN EGOERA baten barruan eta MODU ETENGABEAN emango da. Horretarako, bide hauek ezarriko dira:

- Bertan emandako gomendioak.
- Erabiltzaileen artean informazio-liburuxkak banatzea.
- Enpresako hainbat lekutan informazio panel eta kartelak jartzea.
- Eta abar.

26.3	ERABILTZAILEAK ORO HAR INFORMATZEKO PROGRAMA
B	LARRIALDIKO INFORMAZIOA

Edukia honakoen berri ematera bideratuta dago: ALARMA ABISUA eta ETENGABEKO INFORMAZIOA. Alarma-abisuaz eta etengabeko informazioaz ari garenean esan nahi dugu larrialdi egoeraren eta horren garapenaren berri emango dugula, jarraibideak emanez.

26.3 C	ERABILTZAILAK ORO HAR INFORMATZEKO PROGRAMA
	LARRIALDI OSTEO INFORMATZIOA

LARRIALDI EGOERA AMAITU eta NORMALTASUNERA bueltatzearen inguruko informazioa da. Larrialdi egoeraren ondorioei buruzko informazioa ere ematen da.

26.5 BISITARIENTZAKO SEINALEAK ETA ARAUAK.

Seinale egokiak jartzen ez badiugu eta ebakuazioa bideratzeko prestatutako langilerik ez badago, PENTSATZEKO DA LARRIALDI EGOERA BATEAN ONDORIOAK NAHIKO NEGATIBOAK IZAN DAITEZKEELA.

Beharrezkoa da seinalizazio-plan orokor bat izatea, beteak beste, ondokoak jasoz

- Suteen aurkako prebentzio-neurriak.
- Ebakuazio-bideak eta irteerak
- Eremu bakoitzari dagokion kanpora joateko ibilbide laburrena.
- Suteen aurkako baliabideen lokalizazioa.
- Ezarritako kanpoko batzeko puntuak.
- Ebakuaziorako ezarritako ordena
- Eta abar.

BAINA HORIEK OSATU EGIN BEHAR DIRA, “ZU HEMEN ZAUDE” motako karteletan. Eraikin osoan zehar banatuta egongo dira eta horiei esker bisitariek enpresako kanpoko aldera irteteko bidea aurkitu ahal izango dute. Fotoluminiszenteak izatea komeni da.

26.6 BALIABIDE ETA BITARTEKO MATERIALAK ESKURATZEKO ETA EGOKITEKO PROGRAMA.

LARRIALDI PLANAREN atal ezberdinetan azaldu behar dira dauden GABEZIAK eta horiek HOBETZEKO PROPOSAMENAK.



Atal honetan, aipatutako GABEZIAK eta horiek HOBETZEKO PROPOSAMENAK bideratzeko programa zehatza prestatuko da.

BALIABIDE MATERIALEN HORNIDURA ETA EGOKITZAPEN PROGRAMA

[illegible]

27. 9. KAPITULUA: AUTOBABES-PLANAREN
ERAGINKORTASUNARI EUSTEA ETA EGUNERATZEA

AUTOBABESERAKO EUSKAL ARAUAK garrantzi handia ematen dio AUROBABES-PLANAK uneoro eguneratuta mantentzekiari. Zentsu honetan, ezinbestekoa da, dokumentu biziduna izatea, hau da, egon daitezkeen aldakuntzei egokitzeko gai izatea.

Kapitulu honetan honako atalak aztertuko dira:

27.1 PRESTAKUNTZA BIRZIKLATZEKO PROGRAMA ETA
INFORMAZIO-PROGRAMA.

8. atalean azaldutako "HASIERAKO" PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIO-RAKO BIRZIKLETZE PLAN BAT egin behar da. Horretarako, hori justifikatzeko irizpideak jasotzen dituen PROGRAMA bat landu behar da.

URTERO ezarriko da programa espezifiko bat beharrezko birziklatze-
ekintzak zehazteko.

27.2 BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK ORDEZKATZEKO PROGRAMA.

Jakina denez, AUTOBABESERAKO PLANAK instalazioak ezagutzeko balio du; dituen gabeziez ohartzeko eta indarreko legeria betetzen duten jakiteko. AUTOBABESERAKO PLANA EGITEAN gabezia batzuk antzeman dira. 8.6 atalean jaso dira, MATERIAL ETA BALIABIDEAK HORNITU ETA EGOKITZEKO PROGRAMARI dagokiona. Bertan ikus daitezke LEHENTASUNAK eta AURREIKUSITAKO EPEAK.

Hala ere, denbora pasa ahala, logikoena da hainbat baliabide ALDATU edo egokitu behar izatea, edo aldiz, BESTE BEHARRIZAN BATZUK sortzea.

Zentzu horretan, BALIABIDEAK ALDATZEKO PROGRAMA BAT ezarri beharra dago, eta gure kasuan, hauek dira aurreikusten ditugun bideak:

- MANTENTZE-BERRIKUSPENAK
- SEGURTASUN AUDITORETZA ETA BERRIKUSPENAK
- ARAUZKO BERRIKUSPENAK (O.C.A.)
- DAUDEN EKIPOEN IRAUNGITZE-DATAK KONTUAN IZANDA, ALDAKETAK EGITEA
- GERTAKARI ETA ISTRIPIUE POSIBLEEN IKERKETA
- SIMULAKROAK
- ETA ABAR.

Urtero, AUTOBABESERAKO PLANAREN ZUZENDARIAK eta JARDUERA ZUZENDARIAK aipatutako bloke bakoitzari dagozkion txostenak aztertuko dituzte. Helburua ondorioak BALORATU eta planteatzen diren BEHARRIZANAK zehaztea da, bai hobetzeko, ordeztako, handitzeko eta abar.

27.3 JARDUERA ETA SIMULAKROEN PROGRAMA.

ATAL HAU 29. ATALEAN AZTERTUKO DA MONOGRAFIKOKI



27.4 AUTOBABES-PLANA OSATZEN DUEN DOKUMENTAZIO OSOA BERRIKUSTEKO ETA EGUNERATZEKO PROGRAMA.

